

**Medikuen egoeraz
Benedicto Agirrerekin**

03

Nafarroako mediku eta erizainek lan baldintzak hobetzea nahi dute. Landa eremuan langile eskasia dago eta Etengabeko Arreta eskaintzeko zailtasunak dituzte.



**Josu Baleztenea esku
pilotatik erremontera**

36

lazko urrian Aspek ez zion kontratua berri nahi izan, baina erantsundarrak ez du denbora alferrik galdu eta erremontea hartu eta profesioaletan ari da dagoeneko.

2008ko martxoaren 13a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net

04 Erreken egoeraz gogoeta egiten



• PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA • SALMENTA ETA INSTALAZIOA



- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

www.betikopvc.com

betikopvc@terra.es

Ordoki industrialdea z/g - Tel.: 948 453 259 - Faxe: 948 453 423 - 31713 ARIZKUN (Nafarroa)

DATUAK...

- Nafarroako landa eremuko erizain eta medikuak, Osasunbideko langileak, lan baldintzak hobetzeko eskatzen ari dira.
- Langile eskasia dago: Leitzan 5 mediku behar dira eta 3 dira kontratatuak; Lesakan 4 mediku behar dira eta 3 kontratatuak; Elizondon 7 mediku behar dira eta 3 kontratatuak; Donezteben 3 mediku behar dira eta 2 kontratatuak. Erizainetan gabezia ez da hainbertzerakoa.
- Egoera hobeki azaldu digu Benedicto Agirrek, Baztango Osasun Zentroko zuzendari eta Urdazubiko medikua denak.



Benedicto AGIRRE *Baztango Osasun Zentroko zuzendaria*

ARGAZKIA: G. PIKABEA

«Baldintza txarreatatik hemendik joan da jendea, eta okerrago gelditu gara»

Gurutze PIKABEA

Landa eremuetan Osasunbideko langileen lan baldintzak hobetzea nahi duzue. Zer da zehazki eskatzen duzuen?

Arratsaldeko eta gaueko turnoak egiteko langileak behar dira, Etengabeko Arreta eskaintzeko. Arazoa, batez ere, herrietan dago, eta ez Iruña inguruan. Elizondon, erraterako, orain arte bi lagun arduratzen ziren Etengabeko Arreta zerbitzuaz, eta orain bakarra. Hortaz, titularrek egin behar dute goizeko eta arratsaldeko nahiz gaueko lana. Eta biharamunean berriz lanera.

Joan den abenduan administrazioak proposamen berria egin zuen, plan-tila zabalduko zuela erranez...

Baina ez da horrela izan, eta azken urte honetan hori da arazoa. Orain arte hemen medikuak baziren, baina Nafarroan, zehazki, ez zen bertze autonomia erkidegoetan edo atzerrian adina kobratzen. Kanpoan hemen baino aunitzez gehiago kobratzen zuten, ordua hemengoarekin konparatuz bikoitza. Azkenean, jendea Nafarroatik joan egin da. Geroztik ordainsaria zertxobait igo da, baina ez da langilerik lortzen. Ho-

«Nafarroan ez zen bertze autonomia erkidegoetan edo atzerrian adina kobratzen.

Kanpoan hemen baino aunitzez gehiago kobratzen zuten, eta azkenean, jendea joan egin da»

ri zen abenduan administrazioak proposatutakoaren aitzinetik zegoen egoera, eta ez dute aldatzea lortu.

Otsailaren 25ean medikuen 126 eta erizainen 124 plaza oposizio bidez emanen direla iragarri zuten Gobernuak...

Hori da asmoa azken urtean, baina non dira? Baztanen erraterako, zazpi mediku behar dira, hiru dira kontratatuak eta lau kontratatu gabe daude. Batez ere medikuetan dago gabezia. Erizainak orain ongi daude, baina justu. Gehiago behar baldin badira, edo batek baja hartzen baldin badu, maingu geldituko gara erizainekin ere.

Protesta hauetan langile finkoek eta ez finkoek bat egin duzue?

Langile ez finkoek orain arte aski kontratu txarrak eduki dituzte, ordainsari

kaskarrekin, opor egunik gabe... Orain, euren kontratua hobetu da, baina halere, Nafarroatik joan dira, eta gaizki gelditu gara hemen. Arreta Etengabea eskaintzeko lehen tarteka egiten genuen lan, eta orain astean hiruzpalau egunez. Hori goizeko lanaz gain. Elizondon, adibidez, zortzi mila herritarrei eskaini behar zaie zerbitzua eta guardia bi medikuk egin behar dute. Gauez, egun aunitzetan bi aldiz jaiki behar dute, eta gero lanera goizean berriz!

Akordiorik ezean, protesta gehiago egingen dituzue?

Baldintza hauetan ezin dugu lanik egin! Medikuek ez badu ongi deskantsatzen ezin du ongi lan egin. Medikuen lana hagitik delikatua da, eta erne egon beharra dago. Azken urtebetean baldintza txarretan gaude, Osakidetzako langileak baino okerrago gaude Nafarroan, eta sindikatuak duela bi hilabete hasi ziren mugitzen. Sindikatu guztiek bat egin dute eta hori seinale ona da. Administrazioarekin astero biltzeko gelditu gara, eta ea horrela zerbait lortzen den. Halere, niregatik balitz aspaldi utzia izanen nion lan egiteari!



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Foroaren aurkezpen egunean, ezkerretik hasita, Eva Gartzia Foroaren koordinatzailea, Nafarroako Gobernuko Uraren Zerbitzuko zuzendaria den Juan Jose Grau, Jose Nosellas Oiergiko Kontzejuko presidentea, Jesus Gonzalez Piedra Iparraldeko Ur Konfederazioko Plangintza Hidrologikoko Bulegoko burua eta Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentruko Zuzendari Kudeatzailea den Javier Asin.

Bidasoa ibaiaren egoera hobetzeko neurriak zehaztu dira Uraren Foroan

ZENBAIT HERRITAN UR HORNIDURA EZ DAGO BERMATUA

Uraren kultura aldatu behar da, eta Bidasoa ibaiaren egoera hobetu. Horiexek dira Uraren Forotik ateratako ondorio nagusiak. 2007ko martxoaz geroztik, Bidasoa ibaiaren egoerari buruz eztabaidan aritu dira Baztan, Malerreka eta Bortzirietako 60 gizarte erakunde eta eragile, aditu talde batekin. Guztira 300 bat lagunek parte hartu dute eta Bidasoak zein arazo dituen zehaztu eta 63 neurri proposatu dira. Helburua ibaiari eta bere ekosistemari kalitatea itzultzea, ur-emaria bermatzea eta etxeetako zein enpresetako ur hornidura ziurtatzea da. Azken batean, ura zentzuz kudeatzea. «Ibaia ez delako ur hutsa. Ibaiertzak eta ibilguak, landareak eta animaliak, akuiferoak eta uharrak... Horiek denak ibaiaren parte dira». Hala adierazi zuen Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroak otsailaren 25ean Bertizko Natur Parkean egindako foroaren aurkezpenean. Nafarroako Gobernuak abiatutako ekimena bederatzita hilabetez egin da eta guztira, zortzi bilera egin dira. Neurriak zein diren zehaztuta, orain, agintariei helarazi zaizkie, Iparraldeko Arroko Plan Hidrologikoa eta Gobernuaren plan sektorialak definitzeko.

Gurutze PIKABEA

66 kilometroko luzera du Bidasoa ibaiak, eta 105 erreka iraunkor ditu. Erratzun sortzen da eta Oronoz-Mugaritik aitzinera Bidasoa deritzo. Nafarroako zatian Endarlatzaraino ailegatzten da, eta handik aitzinerako bertz 10 kilometroak Gipuzkoan egiten ditu, Kantaurin itsasoratzen den arte. Bidasoatik urik kontsumituko ez bagenu, urteko batz bertz 900 hm³ko ekarpena eginen luke. Baina 2002ko datuak kontuan hartuz, Kantauri aldeko arroan kontsumoa urteko 7 hm³koa zen. Kopuru altua, beraz. Eta gainera, zenbait herritan ur hornidura ez dago bermatua. Ekainetik irailera izaten da ur eskasirik haundiena.

Bidasoaren egoera txarra da. Industria, abeltzaintza, nekazaritza eta herrietako isuriak tarteko, erreka aunitz kutsatuak daude: Intzola, Ibardin, Onin, Artesiaga, Gilenea, Zia eta Orabidea,

Monika MIGELTORENA Foroaren dinamizatzailea


«Bakoitzak dagokion neurriak hartu beharko ditu, baina denok egin dezakegu zerbait»

Europar Uraren Esparru Zuzentarua onartu zenean, Nafarroako Gobernuak Uraren Kudeaketaren eta Erabilera Iraunkorraren Estrategia onartu, eta Nafarroako Uraren Foroa sortu zen, parte-hartze eta informazioaren bidez uraren kultura aldatzeko. Hortaz hasi zen Bidasoa Azpiaroko parte-hartze prozesua, eta interesgarria izan da, ikuspuntu asko agertu baitira. Garbi gelditu da uraren inguruan arazoak badagoela. Egoera txarra ez da bat batean lortzen, urte askoren ondorioz, baizik. Motibo asko daude, batzuk gure esku, berteak Gobernuaren esku eta berteak denboran egin diren aldaketak dira. Askok dago hobetu edo aldatzeko, eta bakoitzak bere mailan gauzak egin ditzake. Oinarrizko dokumentu tekniko batetik abiatuta Bidasoaren uraren erabilera jasangarri eta kudeaketarako proposamenak egin dira, eta azken dokumentua Iparraldeko Ur Konfederaziora bidali da, 2009rako bukatua egon behar duen Arroen Planean kontuan har dezaten. Gobernura, udal erakundeetara, eragile sozialetara... ere bidali da. Bakoitzak dagokion neurriak hartu beharko ditu, baina denok egin dezakegu zerbait.

hala nola. Ekosistema eta ibaiertzak ere egoera txarrean daude, eta ura zentral hidroelektrikoetara eta bertze erabilera batzuetara bideratzen delako ez dago emaririk. Arrantzan ere badu eraginik, izan ere, behar adinako emaria ez egoteak, zenbait tartetan uraren tenperatura haunditu du eta zenbait espezie ugari egin dira, ubarroiak eta lertxunak, adibidez.

Arazo nagusi horiei aitzin egiteko, 63 neurri proposatu dituzte Uraren Foroan. Nagusienak hauek dira: ur kantitatea bermatzeko zaintza eta kontrol programak lantzea, eta zentral hidro-

Aitor BAZTERRIKA Baztango basozaina


«Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin uraren kudeaketa eta hornidura sarea hobetu behar dira».

Uraren emari ekologikoa falta da eta hornidura sarea hobetu beharra dago. Neurri ugari hartu dira Foroan, baina horien artean ezingo nuke bat bereizi, horrekin bakarrik ez baitira errekek hobetuko. Argi dago uraren kudeaketa eta hornidura sarea hobetu behar direla, eta horretarako Nafarroako Gobernuaren laguntza behar da. Laguntza haundiak lortzen ez baditugu eta udalek ez badituzte dirulaguntzak ibaien egoera hobetzera bideratzen ezin izanen da aitzinera egin. Udalek jendearen kontzientziazioan ere inplikatu beharko lukete, herritarrek badakitelako errekek zikinak daudela baina gauza gutti egiten delako horren kontra. Gustura gelditu naiz Foroarekin, nekazari, arrantzale nahiz ekologistak, guztiek elkar errespetatu dugulako eta Bidasoa horrela egotea bakar baten errua ez dela ulertu dugulako, denen errua baizik. Guk Bidasoaren premiak zehaztu ditugu eta ea Gobernuak behar bezala erantzuten duen, guretzat lehentasuna duten neurriek baliteke Gobernuarentzat ez izatea... Gu gara hemen bizi garenak eta hemen zer dagoen dakigunak.

lektrikoen ur erauzketak garaietan garaiko emarira moldatzea; uraren kalitatea hobetzeko gune kutsagarrien kontrola egitea eta 2.000 biztanlelik behar herrietan araztegiak paratzea; ibai-ekosistemaren kalitatea hobetzeko ibaiak garbitu eta mantentze lanak egiteaz gain, uraren ibilbidea eta ibaiertzak berreskuratzeko planak garatzea; uraren erabilera iraunkorra sustatzeko, ur sarea berrikusi beharko litzateke galera nagusiak saiheste aldera. Horrez gain, ura kontsumitzeko tarifak berriak ezarri nahi dira neurri gabeko kontsumoa zehazteko. Uraren erabilera iraunko-

Josu IRATZOKI Berako alkatea


«Obra haundietan pentsatu aitzinetik oinarritzko neurria ahalik eta ur guttien kontsumitzea da»

Prozesua hagitz ongi egon da, alor desberdinetako jendea bildu delako, nekazariak, arrantzaleak, ekologistak, udal ordezkariak, zentraletakoak... Polemika gehiena, alde batetik, uraren emari ekologikoaren inguruan sortu da. Zentral elektrikoek udan gehienbat ibaiak darimana baino ur gehiago hartzen dute eta errekek agortuak gelditzen dira. Hortaz, garrantzitsua da emari ekologikoa errespetatzea. Zenbait tokitan ibaia urik gabe dago presatik zentralak ura askatzen duen tokiraino. Bertzalde, ur hornidurari dagokionean ere eztabaida izan da zenbait lekutan, Beran adibidez, ur hornidura arazoak daudelako. Jendea sentsibilizatzeko ere lan egin beharra dago. Bakoitzak hamar litro aurrezten baditu, denen artean aunitz egin daiteke. Hori da jendeari buruan sartu behar zaiona, ur eskasia dagoela. Ur hornidura bermatzeko obra haundietan pentsatu aitzinetik oinarritzko neurria ahalik eta ur guttien kontsumitzea da eta sarean galerarik ez dagoela ziurtatzea, eta baldin badago kontrolatzea. Gero hasi beharko litzateke azpiegitura haundietan pentsatzen.

rra kontuan hartuko duten hirigintza planak garatzea ere neurrien artean dago; kudeaketa eta kontrola hobetzeko ura batera kudeatzeko erakunde bat eratzearen aldekoak dira Uraren Foroan. Gisa berean, Nafarroako Gobernuak inplikazio handiagoa izan beharko lukeela erran zuten aurkezpen egunean.

Eraginkortasuna haundiagoa izan dadin, neurri horiek biltzen dituen *Bidasoari irtenbideak bilatzen* izeneko argitalpena banatuko da herritarren artean, euskaraz eta gazteleraz egindako liburuxka.

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK | 2008/03/09

Nafarroako emaitzak



UPN	2	%39,3
	2	%37,6
PSOE	2	%34,6
	2	%33,6
Na Bai	1	%18,5
	1	%18,0
IUN-NEB	0	%3,3
	0	%5,9
Bertze alderdiak	0	%4,3
	0	%3,1


Eskualdeko datuak

• Partehartzea %14,3 murriztu da eskualdeko herrietan duela 4 urteko datuekin konparatuz gero: 2004an %69,01 2008an %54,71


• NaBai-k galdu ditu botorik gehien 2004an 6.752 boto 2008an 5.330 boto

• UPN-k ere 316 boto galdu ditu, nahiz eta CDN aurten ez aurkeztu

• PSN-PSOEK 452 boto irabazi ditu duela 4 urteko emaitzekin konparatuz gero




• Abstentzioak garaitu du Arano, Arantza, Areso, Etxalar, Ezkurra, Goizueta, Ituren, Leitza, Oitz eta Zubietan. NaBai bildu ditu botorik gehien gainerako herrietan Urdazubin salbu. Hor UPNk irabazi du




NAFARROA				
	2008	%	2004	%
Zentsoa	453.587	100	464.807	100
Partehartzea	337.327	74,4	328.609	70,7
Abstentzioa	116.260	25,6	110.842	23,8
Baliogabeak	2.329	0,7	21.296	6,5
Zuriak	4.958	1,5	7.304	2,4
UPN-PP	131.618	39,3	127.653	37,6
PSN-PSOE	115.837	34,6	113.906	33,6
NaBai	62.073	18,5	61.045	18,0
IUN-NEB	11.035	3,3	19.899	6,0
Bertzeak	-	4,3	-	3,2

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK ESKUALDEKA | 2008/03/09



BAZTAN		BERTIZARANA		BORTZIRIAK		LEITZALDEA		URDAZUBI			
	%		%		%		%		%		
NaBai	1.461	38,29	NaBai	1.236	48,80	NaBai	1.773	47,87	NaBai	139	38,94
UPN	1.395	36,57	UPN	642	25,35	UPN	774	20,90	UPN	128	35,85
PSN-PSOE	716	18,77	PSN-PSOE	494	19,50	PSN-PSOE	397	24,22	PSN-PSOE	61	17,09
IUN-NEB	67	1,76	IUN-NEB	39	1,54	IUN-NEB	82	2,21	IUN-NEB	4	1,12
BERTZEAK	51	1,34	BERTZEAK	49	1,93	BERTZEAK	69	1,86	BERTZEAK	7	1,96
Zentsoa	6.338	100	Zentsoa	4.359	100	Zentsoa	6.831	100	Zentsoa	500	100
Parte-hartzea	3.815	60,19	Parte-hartzea	2.533	58,11	Parte-hartzea	3.704	54,22	Parte-hartzea	357	71,40
Abstentzioa	2.523	39,81	Abstentzioa	1.826	41,89	Abstentzioa	3.127	45,78	Abstentzioa	143	28,60
Baliogabeak	49	1,28	Baliogabeak	38	0,87	Baliogabeak	48	1,30	Baliogabeak	10	2,80
Zuriak	76	1,99	Zuriak	40	0,92	Zuriak	61	1,65	Zuriak	8	2,24


ALDERDIRIK BOZKATUENAK HERRI HERRIZ | 2008/03/09


Zentsoa	Parte-hartzea		Abstentzia		Na Bai		UPN-PP		PSN-PSOE		IUN-NEB		Bertzeak		Baliogabeak		Zuriak		
	2008	2004	2008	2004	2008	2004	2008	2004	2008	2004	2008	2004	2008	2004	2008	2004	2008	2004	
ARANO	125	43	63	82	70	30	35	1	2	1	1	2	4	7	4	0	17	2	0
ARANTZA	565	259	404	306	161	138	251	57	36	47	24	1	5	1	3	10	83	5	2
ARESO	242	118	183	124	71	59	64	37	30	18	16	2	1	0	29	1	42	1	1
BAZTAN	6.338	3.815	4.626	2.523	1.735	1.461	1.938	1.395	1.468	716	553	67	90	51	75	49	433	76	69
BEINTZA-LABAIEN	222	127	136	95	99	51	43	41	48	24	23	1	6	3	4	4	8	3	2
BERA	2.865	1.612	2.014	1.253	901	724	923	337	372	429	366	47	85	39	40	11	205	25	23
BERTIZARANA	517	307	342	210	175	141	161	96	85	55	46	8	9	2	5	1	32	4	4
DONAMARIA	340	203	240	137	88	101	123	50	57	36	25	2	3	4	7	3	17	7	8
DONEZTEBE	1.152	781	806	371	276	312	371	234	224	180	132	20	15	17	12	10	45	8	7
ELGORRIAGA	170	111	128	59	45	51	68	26	24	24	11	1	2	5	6	2	14	2	3
ERATSUN	157	87	107	70	57	53	68	19	19	13	12	0	2	1	6	0	0	1	0
ETXALAR	643	310	407	333	248	147	163	86	91	52	40	6	13	5	3	3	89	11	8
EZKURRA	175	67	102	108	90	33	55	19	22	13	11	1	3	1	4	0	6	0	1
GOIZUETA	692	139	430	553	284	98	204	14	15	21	11	1	3	1	6	4	197	0	1
IGANTZI	501	305	372	196	130	156	176	59	65	75	63	2	9	3	10	7	40	3	9
ITUREN	400	194	292	206	95	131	158	24	33	29	37	0	6	5	3	3	49	2	6
LEITZA	2.397	1.008	1.616	1.389	858	534	787	249	269	185	149	10	30	8	16	5	320	17	18
LESAKA	2.257	1.218	1.610	1.039	644	608	765	235	270	294	245	26	38	21	17	17	266	17	9
OITZ	121	50	70	71	45	31	34	9	13	7	8	1	3	0	1	1	8	1	3
SALDIAS	118	62	78	56	37	31	39	10	12	15	3	1	5	2	6	0	9	3	4
SUNBILLA	575	344	406	231	173	190	244	69	53	70	81	4	4	3	4	3	16	5	4
URDAZUBI	319	241	232	78	81	82	102	91	66	46	37	1	4	3	7	10	7	8	9
URROTZ	153	90	95	63	66	39	43	31	30	13	9	0	2	4	4	0	3	3	4
ZUBIETA	259	110	139	149	118	72	65	14	12	15	13	0	1	2	0	6	45	1	0
ZUGARRAMURDI	181	116	137	65	61	57	55	37	36	15	23	3	6	4	4	0	10	0	3
Denetara	21.484	11.754	14.935	9.767	6.608	5.330	6.752	3.240	3.556	2.393	1.941	207	351	192	108	150	1.961	205	198

HERRI ETA KANTONAMENDU BOZAK IPARRALDEAN | 2008/03/09-16

Bessonart Senperen eta Laduche Azkainen nagusitasunez auzapez

LEHEN ITZULIAN GEHIENGO OSOA LORTU DUTE, ETA SARAN IGANDEKO BIGARREN ITZULIAN ERABAKIKO DA

Hegoaldean ez ezik, Ipar Euskal Herrian ere kantonamendu eta herri bozen eguna izan zen martxoaren 9a. Ttipi-ttapak hartzen dituen Sara, Senpere eta Azkaineko datuak aztertu ditugu, eta azken bietan, Senperen zein Azkainen, dagoeneko erabaki dira hurrengo sei urteetan zein izanen diren auzapezak. Botoen erdia baino gehiagorekin, bietan lehen itzulian gehiengo osoz irabazi zuten Christine Bessonartek Senperen (%52,73) eta Jean Louis Laduchek Azkainen (%50,33). Senperen Bessonartek 21 aulki izanen ditu, eta bigarren bozkatuena izan den Nousbaumen zerrendak lau aulki. Abertzaleen taldeak, berriz, bi jasoko ditu. Azkainen, berriz, antzerakoa gertatu da. Laduchek 21 aulki izanen ditu; Marie Pierre Bourdonen *Haize Berri* taldeak lau eta Anita Lacarraren *Ideki* taldeak bertze bi.

Saran, aldiz, heldu den igandean eginen den bigarren itzulian erabaki beharko dituzte herriko ordezkariak. Lehen itzulian, boto aunitzeko alderik gabe *Geroko Sara* taldeko Pierre Arotzarenak lortu zituen botorik gehien, 893 guztira. Aipagarria da, lehen itzulian hamabik lortu dutela hautetsi izatea eta guztiak *Geroko Sara* taldekoak direla. Guztira 19 hautetsi izanen direnez, bertze zazpiak igande honetako bigarren itzulian erabakiko dira. Martxoaren 22a bitarte izanen dute karguak banatzeko epea.

Kantonamenduko bozetan, Saran, Senperen eta Azkainen, lehen itzulian eskuina nagusitu da. Hala ere, Sararen kasuan, 72 boto eskaseko aldea ateratzen dio Mixel Guerendian herritarra buru duen *EH Bai* koalizioari. Senperen eta Azkainen eskuinaren indarra nabarmenagoa izan da.

HERRI BOZEN LEHEN ITZULIA | 2008/03/09-16

SARA		
Parte-hartzea: 1.576		
Zentsua: 1.863		
Abstentzioa: 297		
	Alderdia	Botoak
P. Arotzarena	Geroko Sara	893
J. B. Laborde	Geroko Sara	868
J. M. Jauregi	Geroko Sara	864
P. Indaburu	Geroko Sara	836
M. H. Oronoz	Geroko Sara	833
P. Barneix	Geroko Sara	816
H. Dutournier	Geroko Sara	811
F. Barrenetxe	Geroko Sara	793
C. Sorhouet	Geroko Sara	792
M. Urbistondo	Geroko Sara	772
P. Errandonea	Geroko Sara	767
M. Soudre	Geroko Sara	756

SENPERE			
Parte-hartzea: 3.100			
Zentsua: 4.040			
Abstentzioa: 940			
	Alderdia	Botoak	%
C. Bessonart	Elgarrekin	1.582	52,73
P. M. Nousbaum	Senpere 2008	956	31,8
J. F. Bedere	Abertzaleak	462	15,4

AZKAINA			
Parte-hartzea: 2.565			
Zentsua: 3.168			
Abstentzioa: 645			
	Alderdia	Botoak	%
J. L. Laduche	Altxa Azkaine	1.235	50,33
M. P. Bourdon	Haize Berri	776	31,62
A. Lacarra	Ideki	443	18,05

KANTONAMENDU BOZEN LEHEN ITZULIA | 2008/03/09-16

SARA			
Parte-hartzea: 1.479			
Zentsua: 1.873			
Abstentzioa: 394			
	Alderdia	Botoak	%
V. Bru	Eskuin erdikoa	698	47,19
M. Guerendian	EH Bai	626	42,33
C. Fourgeau	PS	155	10,48

SENPERE			
Parte-hartzea: 2.958			
Zentsua: 4.012			
Abstentzioa: 1.054			
	Alderdia	Botoak	%
B. Auroy	Zentrista	1.373	53,03
M. Mendiboure	EH Bai	576	22,25
F. Daguerre	Eskuina	339	13,09
D. Romestant	PCF	301	11,63

AZKAINA			
Parte-hartzea: 2.292			
Zentsua: 3.111			
Abstentzioa: 819			
	Alderdia	Botoak	%
P. Juzan	Eskuina	1.007	46,07
X. Soubelet	EH Bai	435	19,90
G. Jariod	PS	348	15,92
A. Noblia	EAJ	315	14,41
Y. Debardieux	PCF	81	3,71



Centro
Sagrado
Corazón
Bihotza
Ikastetxea



UNA ESCUELA PARA TODOS - DENONTZAKO ESKOLA

Aurre-inskripzio epea

martxoaren 10etik 17ra

Legia, 20 • BERA • Tfnoa 948 630 009 • scorazon@planalfa.es



ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarrea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Magnaren

harrobiari buruz

Magnak Erdizko harrobia irekitzeko proiektuari azkenean uko egin behar izan diola-eta, nahi nuke, nere izenean, prozesu honetan parte hartu duten zenbait eragileri nere zorionak eman:

-Erdiz Bizirik plataformaren baretetik, Baztango Kirol Taldearen kontra kanpaina egin dutenei, eta zonaldeko komunikabideak eta Baztango Udaleko zinegotziren bat anonimoki mehatxatu dituztenei.

-Magnaren harrobia kondenuatu, baina gaine-rako harrobiak onartu (nahiz eta harrobi hauek inongo kontraspres-taziorik ez eskaini) egiten dituztenen koherentziari, honen barne, bertze harrobietako eta lotutako gremioetako langile batzuenak.

-Landa- etxeak oportet betetzen direnean, Baztan ongi dagoela erraten duten irudikorrei eta Baztan postal bat izan behar duela exijitu, baina gero eta zerbitzu gehiago eta hobeagoak eskatzen dituzten ameslariari.

-Egunero baztandar gazte aunitz lan egitera kanpora atera behar dutela eta batzuk errepidean gelditu direla ahan-tzi egiten dutenei.

-Baztandarrendako sortuko lirakeen lanpostuak ezeztatzen dituztenei.

-Erdizen dagoen

aziendaren nagusi gehienak bertze lan baretetik bizi direla atzendu egin zaienei.

-Harrobia irekitzeak 20 urtez urtero ekarriko lituzkeen 90 milioi euro-ek Baztango Aurrekontu Orokorrean sortuko lituzketen eraginak kalkulatu nahi ez dituztenei.

-Harrobiaren kontra-ko manifestan Baztandik kanpoko jende dezente bazela aipatzen ez dutenei, egun horietan antolatutako zenbait ekitalditara etorri zirenak.

-«Astokeriari», harrobiaren kontra egoteko ezinhobe eta sakonki azaltzen duen argudio teknikoak.

-Karguak eta soldatak behartuta, Magnaren proiektua baloratu eta Baztanendako onuragarria den ala ez erabaki behar zutenei, nahiago izan dutelako Erdiz Biziriken presio latzak planteatu dien arazo politikoari irtenbide bat bilatzea.

-Konprometitu gabe eta bere etekin elektoral bilatuz, isilik egon nahiago izan dutenei.

-Bere ideiak defendatzera baino, tentsio giroa sortzera eta bertze erara pentsatzen dutenak presionatzera ekin diotenei. Presio hori «harrobiaren aitzinean bailaran dagoen kezka» mo-zorratu dutelarik, modu horretan, harrobiaren alde inor ez dagoenaren itxura bilatuz.

-Barnean dugun «ttuku ttuku» horri, batek, mila sinadura baino gu-

tiago gibelean dituelarik, zazpi mila baztandarraren izenean hitz egiten duenean paso egitera eramaten gaituelakoz.

Guztiei, zorionak, nahi zenutena lortu baituzue.

**Joxe Iturzaeta
Elizondo**

E. Salaberriari erantzuna

Lehenik eta behin azpimarratu EZ DELA GURE ASMOA INOREKIN IKA-MIKA BATEAN SARTZEA. Gure asmo soil-soila herria informatzea da. Eta noski! Gazteon iritzi eta izatea berari garrantzia ematea! Orain berriz, E. Salaberriak idatzitako testuari hainbat zuzenketa egin nahi dizkiogu:

1) Testuaren egileekin harremanetan jartzan saiatu omen zara, baina ez omen duzu lortu. Eta nola dakizu ez duzula lortu? Gazte Asanbladako kideetako batekin hitz egin zenuen eta berak esan bezala «guztiok gara testuaren egileak». Asanbladako kide guztiok adostutako gauza bat izan da, beraz, kurioa ezertan ez!

2) «Goizuetako Gaztetxetik kaleratzea ez zaio inori eskatu». Hori da zuk testuan aipatzen zenuena. Eta justu, hori da guk salatzen genuena eta duguna:

Inork ez digu eskatu kaleratzeko baina proiektuan argi ikusi dugu KULTUR ETXEKO PROIEKTU BERRIAN EZ DAGOELA GAZTEENTZAKO TOKIRIK, ez behintzat Gaztetxe bezala funtzionatzeko prestaturiko lokalik, lokal autogestionatu bat bezala eta Gaztetxe baten izaerarekin aurrera segitzeko aukera eman-go digun txokorik.

Eta Goizuetako Udalak izan izango ditu etxe eta lokal gehiago, baina zein izango zen zuen alternatiba, Umore-Ona Elkartearen goiko lokala? Aurrekoan bezala? Oraingo Gaztetxea baino egoera askoz ere okerragoan dagoen beste lokal bat?

3) «Gaztetxeokoen ez zen hitz egin, beste hainbat herritar eta erakunderekin egin ez zen bezala». Baina KASUALITATEZ GAZTEOK GARA KALTETUAK GAREN BAKARRAK EDO BAKARRETAOKAK ETA ONURAK JASOKO DITUGUNAK GUZTIOK IZANGOGARA! Beharrezkoa guztiok hitz egitea baina bereziki gurekin, eragin zuzena jasotzen dugunok.

Bukatzeke, eta aukera hau aprobetxatuz, aipatu Nafarroako Gobernuak atzera bota duela proiektua baina horrek ez duela esan nahi herria Kultur Etxerik gabe geratuko denik. Guztiok borrokatuko baitugu Kultur Etxea eta Gaztetxea uztargarri

● IRAKURLEAK MINTZO ●

izan daitezten eta herri honek etorkizun on bat izan dezan.

Iraganak orainaldia baldintzatzen du eta orainaldiak etorkizuna eraiki. Beraz, hirurak garrantzitsuak herri baten mesederako, gure etorkizunerako!

Goizuetako Gazte Asanblada

Nafarrak mendi

lasterketetatik

baztertuak

Urte batzuen buruan, mendi lasterketek garrantzi handia hartu dute Euskal Herriko kirol egutegian. Gero eta gehiago dira paisaien edertasuna eta ibilbideen gogortasuna uztartuz gure geografian zehar antolatzen dituzten probak.

Euskal Mendizale Federazioak, hainbat klubengandik, Mendizale Federazioaren lizentzia duten lasterketari nafarrak? Euskal Federazioko proba bat har badezake, nolatan ezin du nafar lasterkari batek proba horretan bertan puntuaziorik jaso? Zergatik ez da araudia aldatzen? Zergatik bazterten dira Nafarroako Mendizale Federazioko lizentzia duten lasterkari nafarrak?

Txomin Irazoki
Manttale Mendi
Lasterketa Taldeko
ordezkaria

zoa lasterketak puntuatzeko garaian iristen da. Izan ere, ezin da ulertu Nafarroako Mendizale Federazioko lizentzia duten lasterkariak Euskadiko Kopan puntuatu ahal ez izatea eta Euskadiko txapelak jantzi ahal ez izatea. Euskal Federazioko fitxa dutenek bakarrik jaso ditzakete puntuak, Euskal Mendizale Federazioaren araudiaren arabera. Ondorioz, gerta liteke Nafarroako lizentzia duen lasterkari nafar batek Gastetako Euskadiko Txapelketa irabaztea, baina geropodiumera igotzeko eta bere izena palmaresean ikusteko eskubiderik ez izatea. Gauza bera gertatzen da Iparraldeko korrikalariekin.

Langileen gehiengo zabalaren erabakia ez da gehiegikeria

LABek aldizkari honetan publikatutako idatzia-ri erantzunez ELA-Funveratik hurrengo balantzioa egin nahi dugu, aprobata berria dugun hitzarmenari buruz:

1.- Hitzarmen hau, asanblada orokor eta erabakior batetan aprobata izan da bozka sekretuarekin. Bozken 70% alde, 23,6% aurka eta 6,4% txuriko emaitza eman zelarik. Hortaz argi eta garbi ikusi daiteke hitzarmen hau aprobatazeko erabakia, langilearen gehiengo zabal baten erabakia izan dela eta ez dela ELA-ren gehiegikeriarengatik aprobata. Akordio honek 3 milioi eurotako inbertsioa bermatzen du instalazio hobekuntzatan eta 30 langile berri inguru kontratatzea ekarriko du.

2.- Behin-behinekotasuna 15% baino handiagoa denean, kopuru hau gianditzen duten kontratuak mugagabe bihurtu behar direla adierazten duen artikuloi dagokionez, bi urtez eten da 15 kontratu mugagabe egitearen truke, bi urte huetan dagoen lan kopuruaren ezhizkotasuna dela eta.

Informazio modura, azken 15 hilabeteetan 27 kontratu mugagabe egin direla adierazi nahi dugu, eta behin-behineko kontratua duten langileen artean, ez dagoela 16 hilabete baino antiguotasun handiagoa duen langilerik.

3.- Alda-txandako lanaldia 32 ordutan gutxitzea lortu da, lanaldi orokorrean lortutako 8 ordu gutxierari gehituta, lanaldi murrizketa nabarmena suposatzen duela. Era berean alda-txandarako lortu den plusa, 132,75 %koa da lan egiten den larunbata, igande edo jaiegun bakoitzeko, soldata igoera orokorra KPI + 2koa delarik urte bakoitzeko.

Alda-Txandari alternatiba bezela LABek adierazten duen "plana", hiru alditan enpresari proposatuta zegoen alde aurreratik, hiru alditan honen ezezkioa jasoaz erantzun bezela. Enpresak aldatxanda plataforman ataratuaren bidez, bi urtetarako honen baldintzak negoziatzea edo mugarik gabe ezartzea jakin arazitako egunetik 45 egunetara, langileen estatutuko 41.4 artikuloa aplikatuz, eta hasierako baldintzatan.

4.- LAB en jarreta negoziaketa prozesuan, berriro ere, puntu negatiboa

izan da. Jarrera positiboa bat hartetik urrun, sugerintziak gehituz eta errespetuz eta lehiatasunez parte hartuz, negoziaketa boikoteatzea izan du helburutzat, pertsona batzuen interesak, interes orokorren gainetik ipinita, langileen gehiengoak aprobatautako hitzarmena sinatu ez dutelarik. ELA-Funveratik, hitzarmenaren sinaduran, langileak dutela azken hitza asanbladaren erabakia errespetatzen dugu, Beste batzuk ez bezela.

5.- ELA langileen partehartze zabala eskertu nahi du, eta hauek erakutsitako inplikazio eta profesionaltasuna negoziaketa prozesu osoan zehar. Arazoak ebazten jarraitzeko bere apostua berresten du. Tinko lan eginaz Funverako langileen eskubideak defendatuz, eta era berean pertsona guztiekiko, merezi duten errespetua mantenduz.

Funverako ELA

Zuzenketa

Aitzineko ttipi-ttapaaren alean, hezkuntzaren atalean, hurrengo ikasturte-rik aitzinera Nafarroan Haur Hezkuntzako eta DBHko testuliburuak dohainik izanzen zirela aipatu genuen. Baina akats bat egon zen titularrean. Izan ere, Lehen Hezkuntzako eta DBHkoen liburuak izanzen dira doakoak eta mailegu bidez funtzionatuko dutenak. Barikatu eragozpenak.

OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanzen du horretarako eskubidea.

AZPIEGITURA

Abeltzaintzako azpiegituretarako 3,5 milioi euroko dirulaguntza

2008-2009an banatuko dira landa eremua bizkortzeko xedearekin

ttipi-ttapa

Abeltzaintzarekin lotura zuzena duten azpiegitura eta ekipamenduetara bideratutako dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak. Guztira 3,5 milioi euro emanen dituela iragarri du eta bi urtera begira onartutako plana da: erdia aurten bideratuko luke eta beritze erdia hurrengo urtean. Joan den martxoaren 3an onartu zuen aipatu dirulaguntza Gobernuak.

Landa eremuetako garapen jasagarria bultzatzea omen da Nafarroako Gobernuaren helburua eta bide horretan, orografiak eta bertzelako arazoiek hala behartuta azpiegitura berriekin lan egiteko aukerarik ez duten inguruei lagundu nahi die. Euren sektorean —kasu honetan abeltzaintzan— gibeleratuak gelditzeko arrisku handiagoa dutelakoan onartu du bi urtetarako laguntza hau Gobernuak.



ARTXIBOA

Abeltzaintzaren sektorea indartzeko helburuarekin emanen du dirulaguntza Nafarroako Gobernuak.

USTIATEGIETARAKO BIDEAK HOBETZEKO

Landa Garapenaren Programaren barruan, laguntza deialdiak larreen eta abeltzaintzako tokiko azpiegituren hobetzea hartzen ditu bere baitan. Zehazki, laguntzak abere ustiategietara joateko bide publikoak hobetzeko izanen dira. Gisa

berean, ur hornidura bermatzeko ere erabili nahi da dirua, hala nola, askak, tratamendueskortak, baltsak, langa kanadiarrak eta eskorta publikoak eraikitzeke.

Nafarroako Gobernuak emandako datuen arabera, mendialdeko eta gibeleratuak gelditzeko arriskuak duten

tokietako entitateek 5,28 milioi euroko inbertsioa egingen dute, eta horietatik 3,30 milioi euro Gobernuak finantzatuko ditu. Gainerako lekuetan, 333.333 euro inbertituko omen dira, eta horri aitzin egiteko, Gobernuak 200.000 euroko dirulaguntza emanen duela iragarri du.

FLASH

Langabeziak beheiti egin du eskualdean

Nafarroa osoan otsailen langabeziak %3,48 goiti egin badu ere, eskualdean ilbeltzeko igoera bortitzari buelta eman eta 3,63 beheiti egin zuen joan den hilabetean. Otsail hondean 690 lagun ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena eman zutenak, urtaril hondean baino 26 guttiago. Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez 411 kontratu egin ziren urtarilean, baina horietatik 67 bakarrik izan ziren mugagabeko kontratuak. Adina eta sexuari dagokionez, ohikoa denez, 25 urtetik goitiko emakumeak dira langabezia gehien jasaten dutenak. Nahiz eta urtarilean baino 12 guttiago izan, 400 dira adin tarte horretan lanik gabe dauden emakumeak. Lan arloei dagokionez, gehienetan jautsi da langabezia, baina zerbitzuen arloak segitzen du diferentziarekin langabetu gehien biltzen, 457 langabekurekin. Halere, urtarilean baino 17 langabetu guttiago ditu zerbitzuen arloak.

Donamaria, Sunbilla eta Beintza-Labaien Bertizko Partzuergoan

Bertizko Partzuergo Turistikoa berrindartzen ari dela dirudi. 2006ko abenduan krisi baten ondorioz partzuergotik atera ziren herrietatik batzuk berriro itzuli dira eta hori da, Donamaria, Sunbilla eta Beintza-Labaienen kasua. Gaur egun, lau dira partzuergotik kanpo segitzen duten herriak: Bera, Lesaka, Elgorriaga eta Doneztebe.

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

larkilana
ARKITECTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO • Santiago, 54 behe • 948 581 931
BERA • Eztegarra, 8 behe • 948 625 232

BERTSOLARITZA



UTZITAKO ARGAZKIA

Miguel Mari Elozegi *Luze* eta Jon Barberena Berako finalaurrekoan. Larunbatean Elizondoko finalean izanen dira biak.

Zortzi bertsolari ariko dira larunbat honetan Elizondon Nafarroako txapelaren bila

Arratsaldeko 5etan dute hitzordua Lur aretoan

ttipi-ttapa

Ailegatu da Nafarroako bertsolaritzaren egun handia, aurtengo bertsolari txapelketa, alegia. Erika Lagoma (Lesaka, 1981), Xabier Legarreta (Arano, 1977), Jon Barberena (Elizondo, 1979), Julen Zelaieta (Bera, 1980), Xabier Terreros (Lesaka, 1981), Julio Soto (Iruñea, 1987), Iñigo Olaetxea (Lesaka, 1975) eta Migel Mari Elozegi *Luze* (Leitza, 1970). Horiexek dira larunbat honetan Elizondoko Lur dantzalekuan Nafarroako txapela lortzeko lehian bertsoan arituko direnak. Denak ere gazteak.

Aurtengo txapelduna berria izanen da. Lehian ibili diren 25 bertsolarien artean Bittor Elizagoienek baino ez zuten jantzia lehenagotik txapela. Aurten, ordea, finaletik kanpo gelditu da. Azken borts

urteotan txapela jauntzi duen Xabier Silveira lesakarrak edizio honetan ez parte hartzea erabaki zuen; Estitxu Arozenak, berriz, joan den urtean utzi zuen txapelketako lehia.

Erika Lagoma (343 puntu), Xabier Legarreta (327 puntu) eta Jon Barberena (339 puntu) izan dira finalerako sailkatu diren lehen finalistak, Txantrean, Lekunberrin eta Beran jokaturako finalurrekoetan lehenbiziko postuak lortu ondotik. Gainerako bortsak, berriz, puntuazio onena jaso dutenak izan dira. Julen Zelaieta 331 punturekin sailkatu da finalera, Xabier Terreros 320,5ekin, Julio Soto eta Iñigo Olaetxea 318,5 punturekin eta *Luze* 310ekin.

Zortziak larunbatean Elizondoko Lur aretoan elkartuko dira. Bertsolazaleentzako hitzordua 17:00etarako paratua dago.

www.nafarroakotxapelketa.com

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

08

Finala
Martxoak 15, Elizondo
Lur aretoa, 17etan

Erika Lagoma

Xabier Legarreta

Jon Barberena

Julen Zelaieta

Xabier Terreros

Migel Mari Elozegi "Luze"

Iñigo Olaetxea

Julio Soto

antolatzailea:
Nafarroako Bertsolazale Elkartea

laguntzailea:
ttipi-ttapa

BERA

FLASH

Apirilaren 13an egingen da Mendi Maratoi Erdiaren laugarren edizioa

Martxoaren 30ean akituko da izen emateko epea

Amaia eta Ainhoa

Mantale Kirol Taldeak apirilaren 13rako antolatu du Berako IV. Mendi Maratoi Erdia. Lasterketak iaz Euskadiko Txapelketa hartu bazuen ere, ohiko formatoa berreskuratu du. Antolatzaileek 400 korrikalarik parte hartzeko itxaropena daukate.

Ibilbidea iazko bera izanen da: 2.420 metro baino gehiago igo beharko dituzte 21 kilometroko ibilbidean eta Larun mendiaren 900 metroko altuera izanen dute gainditu beharreko altuerarik handiena. Marka hobetzen duenak (1:41:27) 300 euroko saria jasoko du. Ibardingo Bentan tarteko helmuga bat jarriko dute eta bertatik lehendabizikoa pasatzen denak 150 euroko gainsaria lortuko du. Bertzalde, lehen hiru sailkatuek, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan, 250, 150 eta 100 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren.

Federatu eta federatu gabe daudenentzako lasterketa irekia da. Izen emateko epea martxoaren 1an ireki zen eta 30era bitarte luzatuko da, beti ere 400 partaideko muga gainditzen



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Ugaldeako etxebizitzaren inguruan gorabeherak

Berako EA, Aralar eta EAJ alderdien udal taldeek Ugaldea auzoan kiroldegia ondo etxea eraikitzeko orduan eman den eztabaida ikusiz eta EAE-ANV Udal Berri aldizkarian eman duen informazioari erantzuteko prentsaurrekoa eman zuten martxoaren 6an. PNVko Santi Altzuguren, EAko Helena Santesteban eta Aralar Jon Abril zinegotziek egin zuten agerraldia. Udal talde hauen arabera, etxebizitza proiektuak legearen betebeharrak guztiak betetzen ditu. Proiektua jendearean egon zenean eta alegazioak egiteko epean, inguruko bizilagunek ez zutela inolako alegaziorik aurkeztu ere azpimarratu zuten. Etxebizitza hauen afera ANV udal hauteskundetan kanpaina egiteko baliatu zuela salatu zuten eta Josu Goia alkatea zenean egindako plana dela aipatu. Orain aprobetxamendu txikiago izan behar duela onartuko balitz, Udalak dirua galduko lukeela uste dute.

ez bada. Izena www.mantalle.com web orrian egin daiteke. Inskripzioa egiten dutenek produktu gastronomiko sorta bat, kamiseta eta galterdiak eskuratuko dituzte eta proba bukatzen denean egingen den zozketan parte hartuko dute. Lasterketa 9:30ean kiroldegitik abiatuko da.

Margo erakusketa

Berako Kultur Batzordeak antolatuta, martxoaren 17tik 30era Fernando Azkona eta Jose Mari Iparraren margo erakusketa zabalik izanen da. Olio eta arkatzarekin egindako lanak ikusgai izanen dira egunero, goiz eta arratsaldean.

Argazki erakusketa

Berako Kultur Batzordeak Aste Santurako argazki erakusketa antolatu du. Martxoaren 19tik 24ra bitarte Iamotenean Rosa Mari Errandonearen Berako basearren argazkiak ikusteko aukera izanen dira, 18:00etatik 20:00etara bitarte.

Dantza ikastaroa

Labiaga Ikastolak antolatuta, DBH1 eta 2ko ikasleek Hip-Hop eta Funky bezalako dantzak ikasteko aukera izanen dute martxoaren 24tik 28ra. Nahia Artieda beratarra izanen da goizetan ikastaroa emateaz arduratuko dena. Izen emateko epea martxoaren 17an bukatuko da. Apuntatzeko edo informazio gehiago lortzeko, berriz, 948 630172 telefonora deitu beharko da. Ikastaroa doan izanen da.

Julen Zelaieta finalean

Larunbat honetan Elizondoko Lur dantzalekuan jokatu den Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean herriko ordezkari bat izanen dugu: Julen Zelaieta. Gazterik hasi zen bertsoetan eta 2005ean eta 2006an hirugarren izan zen Nafarroako finalean. Iaz bosgarren sailkatu zen. Edizio honetan 331 puntu lortuta Txantreako finalaurrekoan eskuratu zuen finalerako txartela.

Abesbatzaren kontzertua

Berako Abesbatzak antolatuta, larunbat honetan, martxoak 15, Tallako Tubala Uxo Abesbatzak kontzertua eskainiko du Kultur Etxean. 19:30ean hasiko da kontzertua, eta 1985ean sortutako talde honek estilo eta garai guztietako abestiak kantatuko ditu.



LESAKA

FLASH

Turismo Bulegoa, bisita gidatuak eta Haurren Txokoa Aste Santurako

Erdi Aroko V. Azoka martxoaren 30ean egingen da

Aitor AROTZENA

Aste Santuari begira, turistentzat nahiz herrikoentzat zerbait eskaintza egingen ditu Udal Kultur Batzordeak. Hasteko, martxoaren 19tik 30era Turismo Bulegoa irekiko da Udaletxeko beheko solairuan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Martxoaren 19tik 28ra, berriz, bisita gidatuak antolatu dira herrian barna eta bidaxketan barna. Ibilbide hauei buruzko informazioa Turismo Bulegoan galdegin beharko da.

Martxoaren 19tik 29ra, azkenik, haurren txokoa prestatuko da frontoian, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Eguneko sarrera 2 euro ordaindu beharko da eta, bertzeak bertze, puzgarriak, etxetxoa, ludoteka, futbolinak eta ping-ponga izanen dira.

Erdi Aroko bosgarren Azoka martxoaren 30ean

Martxoaren 30ean egingen da Erdi Aroko Azokaren bosgarren edizioa. Beti bezala, artisau postuak, karrika animazioa eta tailerrak



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Udal kiroldegia martxoaren 1ean inauguratu zen Martxoaren 1ean egin zen udal kiroldegiaren inaugurazioa. Jose Javier Esparza Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuko zuzendaria izan zen zinta moztan. Bere alboetan, Koldo Erkizia alkatea eta Fermin Altzugarai eta Txarri Aiala zinegotziak zeuden. Lesakan legez kanpo utzi zuten ANVko bi hautetsiek salbuespen egoeraren aurkako agerraldia egin zuten. Erakundeetako ordezkariak lehenik, eta herritarrek gero, instalazioa ikusi zuten.

izanen dira herriko besta egitarauan indarra hartu duen ekitaldian, eta arratsaldeko dantzaldia Erdizka Lauetan taldeak girotuko du.

Igandeko Erdi Aroko Azoka izanen da martxoaren azken aste hondarreko ekitaldi nagusia, baina larunbatean ere, martxoaren 29an, izanen da zer ikusi eta zer aditu. Goizean, azoia antolatu du Udal Kultur Batzordeak. Mingain urdina-

ren eritasunaren ondorioz, udazkenean ez zen azoia egin. Eritasuna hedatzeko arriskurik ez dago orain, nonbait, eta udaberriaren sarturik, azoia lehia egingen da plazan.

Arratsaldean, 19:30ean, Tantirumairu euskal folklore taldeak dantza saioa eskainiko du Kasinoan eta gauez, 22:30ean, Joseba Irazoki & Balerdi taldeak kontzertua eskainiko du Atxaspi ostatuan.

Euskal Herriko sokatira txapelketako tiraldiak larunbatean

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketako jardunadia jokatuko da larunbatean, martxoaren 15ean, 15:30etik aitzinera frontoian. Beti Gaztek antolatzen du eta nesketan, herriko tiralariak ariko dira 480ko kategorian. Mutiletan, 560 kategorian ariko dira.

Udaberriko kontzertua

Martxoaren 18an, asteartean, Udal Musika Eskolak udaberriko kontzertua eskainiko du udaletxeko pleno aretoan, 17:30etik aitzinera.

Bertsosai berezia martxoaren 27an

Martxoaren 27rako bertso saio berezia antolatu du Bortziritako bertso eskolak. Ortzegun horretan, 19:00etan abiatuko dira bertsolariak Zialdotik.

Mendi bizikleta ibilaldia berreskuratuko du Beti Gaztek

A.A.

Beti Gazte elkarteak otsailaren 29an egin zuen urteko batzarra. Aurrekontuan igoera nabarmena izanen da, futbol-zelaiko aldagelak egiteko 100.000 euro bideratuko baitira. Espainiako Futbol Federazioaren dirulaguntza ere izanen du eta lanak auzolanean egitea aurriratsi du Beti Gaztek. Guzira 177.000 euro inguruko aurrekontua izanen du. Ekitaldiei dagokienez, mendi bizikleta ibilaldia berreskuratuko du Beti Gaztek irailean eta Lesakako IX. Mendi Itzulia antolatuko du ekainaren 15ean.

ETXALAR

Usategiei buruzko erreportajea DVDan bildu du Gobernuak

Altxata Kultur Elkarteak Batzar Orokorra egingen du hilaren 30ean

Joseba eta Nerea

Nafarroako Gobernu-ko Kultura eta Turismo Departamentuak, Lizarrako Julio Caro Baroja Museoaren bitartez, ondare etnologikoiari buruzko bi DVD argitaratu berri ditu. Horietako batean, Etxalarko usategiei buruzko 32 minutuko erreportajea ikusteko modua dago. XIII. mendetik honat ehiza modu tradizionalan nola mantendu dugun ageri da DVDan. Guztira 150 ale argitaratu dira baina ez dira salduko. Horietako ehun Nafarroako liburutegi publikoetan daude ikusgai eta gainerakoak, Etxalarko Herriko Etxera, inguruko museo etnografikoetara, gisa honetako ikerketak egiten dituzten erakundetara eta Nafarroako Julio Caro Baroja Museo Etnografikoaren laguntzaileei bidali zaizkie.

Eskolen topaketa
Asteazken honetan,

martxoak 12, Igantzi, Arantza eta Etxalarko eskoletako haurrak urteroko topaketa egitekoak ziren, aurtengoangure herrian, Etxalarren. Frontoian elkartu eta jostetan aritu ondotik Sanbahu taldearen pailazo-ikuskitzuna ikustekoak ziren. Azken ateraldia Arantzara egin zuten, eta hurrengoan Igantzira joanen dira. Hemendik hiru urtera Etxalarren elkartuko dira berriz.

Altxatako Batzar Orokorra

Heldu den martxoaren 30ean egingen da Altxata Kultur Elkarteak Batzar Orokorra. Hitzordua eguerdiko 12etan paratua da Kultur Etxean, eta bazkide guztiak deituta daude joan den urteko kontuak begiratu, aurtengo aurrekontuak zehaztu eta junta-berritzeaz solasteko. Hurrengo alean emanen dizuegu elkartearen gora-beheren berri.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuhaitzaren Eguna Landagain Eskolan

Otsailaren 22an Zuhaitzaren Eguna egin zuten eskolako ikasleek. Goizean goizetik mendira joan ziren, ttikienak autoz eta gaztetxoak oinez, ongi pasatzeko aitzakian, zuhaitzak landatzera. Usategietan izan ziren, inguruko parajeetan haritzak, gorostiak, pagoak, lizarrak eta gaztainak landatzen. Gurasoak ere haurrekin ibili ziren, aspaldiko ohiturari segituz, aitzurrarekin goiza pasatzen. Guztira 90 zuhaitz landatu zituzten. Irakasleek erran digutenez, «horrelako egunak hagitz aberasgarriak dira ikasleentzat. Natura ezagutu, errespetatu eta biziberritzen ikasten dute, bide batez, egun ederra pasatuz».

ARGAZKIA: AINHOA BERRUETA

Maiatz arte mendi-irteerak

Arrakasta handiarekin segitzen dute aitzinera igande goizetako mendi-irteerak. Haur, gazte eta heldu, 20 lagunetik goitiko koadrilak elkartzen dira Etxalarko nahiz inguruko herrietako mendi-parajeak ezagutzeko aitzakian. Altxata Kultur Elkartearen ekimenez, Periko Berrueta eta Joxe Mari Arburuaren gidaritzapean antolatzen dira ateraldiak, eta erran digutenez «ikusitako ikusita, heldu den maiatzera arte segitu nahi dugu ateraldiak antolatzen. Bertzak bertze, Atxuriara, Azkuara, Mendikarrira, Zugarramurdira eta Auzara (Baztan) joanen gara». Argazkia duela bi igandekoa da, Mendaurrera joan zirenekoa.



BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

WATER-BIKE
Kanttonberri, 1 • BERA
948 63 12 18

Z
Zalain
jatetxea - hostala

14 logela bainu
eta TBrekin

Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

Behetik
AULKI JASOTZAILEAK

Añorgatik 14
Tel: 943 372 870
Fax: 943 372 870
Fax: 943 365 586
behetik@behetik.com
20018 DONOSTIA

ARANTZA

Sagardotegira ateraldia egingen da martxoaren 29an

Txartelak herriko ostatueta daude salgai, 10 euroren truke

Nerea ALTZURI

Martxoaren 29an Hernaniko sagardotegi batera irteera antolatu dute Ekaitza Elkartek eta Gazte Asanbaldak elkarlanean. Autobusa eguerdiko 12etan aterako da herritik eta goizaldeko 4etan egingen du itzulera. Joan nahi duenak herriko ostatueta aurkituko ditu txartelak 10 eurotan. Martxoaren 20a arte egonen dira salgai.

torioen gainean filma sorta eskaini baitu. Hala, ortzegun honetan, ilunabarreko 8etan *Emakumeon historia irudietan* izeneko bideo bilduma ikusgai izanen da. Ondoren, 20:30ean *Fuegoiz* eneko filma eskainiko da.

Bertzalde, aipatu, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, emakumeen afaria egitekoa zela Aterpen.

'Emakumeok badugu zer ikusirik'

Azken egunetan bertze herrietan egin diren moduan, ortzegun honetan, hilaren 13an, eta Zahar Txokon Emakumearen Nazioarteko Egunarekin loturiko ekitaldia izanen da ilunabarrean. Izan ere, Bortzietako berdintasun arloak *Emakumeok badugu zer ikusirik* lelopean herriz herri emakumeen historia eta is-

Ekaitza Elkarteko batzarra

Joan den otsailaren 23an Ekaitza Elkarteko batzarra egin zen. Zenbait puntu jorratu ziren eta tartean, bi urtero behin aldatzen den juntako kide bozkatuenen berri eman zen. Izan ere, junta aldatetaren txanda da aurten eta horretarako, aintzinetik elkarteko bazkide guzietan izen zerrendarekin paperak bidali zi-



ARGAZKIA: LUCIA IPARRAGIRRE

Mozorro Besta arrakastatsua

Berriz ere egin da Mozorroen Besta. Inauterien antolaketaz arduratu den gazte taldeak pasa den otsailaren 23ko ekitaldiak antolatu zituen. Me-zondoan, herri kirol saio polita izan zen frontoian. Baserritar eta herritar mozorro taldeak lehiatu ziren proba konbinatuan, sokatiran eta ingude altxatze proban. Baserritarrek proba guziak irabazi zituzten erakustaldian. Honen ondoren, ehunen bat lagunek Aterpen egin zen bertso afarian parte hartu zuten. Irazu eta Legarreta bertsolariak goizaldera bitarte girotu zuten afalondoa eta Agerralde musikariarekin luzatu zen arratsa herriko gorapean. Argazkian herri kiroletan parte hartu zuten Mozorro Zuri batzuk ageri dira.

tzaizkien hamar izen hautatzeko aukera eman ez. Hori horrela, kontaketa lana egin ondoren, boto gehien jasotako hamar bazkideren izenak zehaztu ziren. Oraindik ardurak edo karguak barnatzeko bilerarik ez dute egin eta honen berri izatean, jakitera emanen dugu nortzuk osatuko duten hurrengo bi urteetako batzordea.

Udal langilea

Aitzineko aleetan albis-

tea eman bezala, Udalak zerbitzu anitzetako langilea hartzeko deialdia egin zuen urte hasieran. Bortz lagunek eman zuten izena eta horietatik hiru aurkeztu ziren. Hiru horiek azterketetan ari dira. Duela bi aste euskara froga hizururek gaintu zuten eta aitzineko astean edo honetan proba teorikoa egitekoak ziren. Aranztar, igantziar eta etxalartar bana ari dira probetan eta azken emai-

tza jakin bezain abudo horren berri emanen dugu. Herriko Etxeak hainbat egin beharretarako hartu asmo du langilea: ur biltegien, kloratzaileen eta hornidura eta saneamentu saren mantentze lanak egiteko; kontadorearen irakurketarako; argiteriaren, kanposantuaren bide eta mendiko nola herriko bertze zerbitzuen zainketa egiteko; eta Udalaren agiri eta bandoen berri emateko.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
Tel: 948 634 475
BERA NAFARROA

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ATERPE
ALBERGIA
ALBERGIA · JATETXEA

PERSIANAS **TOLDOS BAZTAN**
TOLDOAK salmenta-konponketa-alo-kairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK
Tel-Fax: 948 631 003
Bidasoa, 66 behea - BERA

SUNBILLA

Martxoaren hondarreko asteburuan ospatuko dira kultur egunak

Gaupasa eta herriko artisauen feria dira aurtengo berrikuntza nagusiak

Jaione OTXANDORENA

Bertze urte batez, Antzakaitz kultur taldeak, Guraso elkarteak eta Antrotokiko gazteek egun kulturalak antolatu dituzte martxoaren 28, 29 eta 30erako. Ondorengo lerro hauetan egitaraua bildu dugu. Ezin ukatu ekitaldiz betetako asteburua izanen dela.

Martxoak 28, ortzirala

22:00etan *mus txapelketa* Ulibeltzak elkartearen.

Martxoak 29, larunbata

11:00etan munduko kulturen *gastronomia lehiaketa*.

14:00etan *bazkaria* Ulibeltzak elkartearen.

15:00etik 20:00etara *haurrendako puz-*

garriak, zezen mekanikoa, kartsak...

17:00etan *haurrendako merienda*.

18:00etan *trikipoteoa* eta *jokuak*.

21:00etan herriko gazteen *karaokea*.

23:00etan *kontzertua*.

00:30etik aitzinera gaupasa *Trikidantz* taldearekin.

Martxoak 30, igandea

10:30etik 13:30era Sunbillako lehenbiziko *gazta lehiaketa* eta *artisau feria*.

11:00etan herriko trikitilariak.

14:00etan *bazkaria* Ulibeltzak elkartearen.

17:00etan *haurren dantza emanaldia*.

18:00etan *txokolatada*.

Ondotik, herriko haurren antzerki saioa.



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

Ekitaldi andana prestatu dituzte kultur egunetarako.

 Etxeko Ardi Gazta

Lizun
GAZTANDEGIA

Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

 **txokoberri**
Aluminioan espezializatuak

- Aroztegi Metalikoa (Ielhoak, ateak, barandak, ...)
- Parket

Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 681 924

 **ANTZUZELAS**
S.L.

Tel: 948 631 317

HARRI NATURALA

Aharritza eta Lantza

Harrizkoak: Argaleak, Urteak, Beldurrak, Zuhurrak, Urteak, Urteak, Urteak, Urteak, Urteak, Urteak

Harrizkoak: Urteak, Urteak, Urteak, Urteak, Urteak, Urteak, Urteak, Urteak

ZINTARRIAK
ADUEKAK
ZULAK

Inongo errepidea
BERA

ATM S.A.




AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaiaik
- Mantenu rodilloak

Igantzikoko bentak
948 63 74 11

EDARIAK



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

DONEZTEBE

Aritz Meoki da Gazte Burrenbako lehendakari berria

Zuzendaritza batzordea berri du elkarteak

ttipi-ttapa

Aitzineko alean Gazte Burrenba bere gararik onenean ez zegoela aipatu genuen. Hala ere, badirudi egoerari buelta eman eta berriz indartzekotan dela. Izan ere, otsailaren 29an bilkura egin zuten eta bazkideek zuzendaritza berria aukeratu zuten.

Hemendik aitzinera lehendakaria Aritz Meoki izanen da eta lehendakariordea Jon Etxekolonea. Diruzaina Miren Martin izanen da eta idazkaria, berriz, Koldo Legarra. 21 eta 22 urte dituzte, eta horrekin orain arteko elkartekideek nahi zuten belaunaldi aldaketa egin da.

Bertzalde, bokalekin funtzionatuko dute. Koadrila bakoitzak bere bokala izanen du eta honen bileretan erabakitakoa zabalduko luke. Gainerakoan, orain arte bezala, Azkarretan elkartzen segituko dute. Aipatzekoa da, lehen zu-



Joan den urtean Gazte Burrenbak antolatu zuen Burrenba Eguneko irudia. ARTXIBOA

zendaritzan egondakoez bileretara joanen direla iragarri dutela.

Ukrainiako haurrak ekartzeko lanean

Doneztebeko San Migel ikastetxeko Guraso Elkarteak udan Ukrainiatik haurrak ekartzeari aldeko kanpainan lanean ari da. Ukrainiatik haurrak ekartzeari arduratzen den Iruñeko gi-

zarte erakunde baten gonbidapena jaso zuten Doneztebekoek, Txernobil aldeko umezurtzetxetako 7 eta 10 urte bitarteko haurrei aterpea eskaintzeko sei familia behar dituztelako. Kherson proiektuarekin batera, haur ukrainiarrei laguntzeko San Migel ikastetxeak parte hartzen duen bigarren proiektua da hau.

Ekainaren 23tik abuztuaren 28ra hartu-

ko dira haurrak etxean, eta bidaiaren gastua 550 euro ingurukoa izanen da. Diru hori haurra etxean hartuko duen familiak aurreratuko luke, baina gero gehiena itzuli egingen litzateke.

Interesatuak Iruñeko Bigarren Familia Erakundearekin harremanetan jarri behar dute, 628 060717 telefonora deituz (Maite), edo bertzela, info@segundafamilia.comera idatziz.

ELGORRIAGA

Bautista Iruruetak bere adintsukoren baten kontra pilotan ari nahiko luke

ttipi-ttapa

Elgorriagako Bautista Irurueta pilotazale amorratu da. 1946ko apirilaren 18an sortua, gaur egun 61 urte ditu eta duela urte batzuk pilotarako desafioa bota zien bere adinekoak edo zaharragoak diren pilotariari. Pilotarako grina gaztetatik dator, 18 urterekin eta pilotarako dohainak izanda ez baitzuen Baztan-Bidasoako gazte mailako txapelketan parte hartzerik izan. Orduan hala erran omen zion bera baino hogeitau urte zaharragoa zen anaia: «Plaza gixon, kaka gixon, hortik ez duk ogirik aterako!». Geroztik, bederatzitau urte egin zituen artzain Ipar Ameriketako mendi eta basamortuetan. Oraindik orain pilotarako grina handia du Bautista Iruruetak eta arantzaxo hori kentzeko asmoz, pilota partidaren bat jokatu nahi luke bere adinekoak edo zaharrago den Baztan, Malerreka, Bidasoa edo Urumea aldeko pilotariren baten kontra. Horretarako gogorik duenak 646 799828ra deitu eta Bautista Iruruetakarekin adostuko du partida non, noiz eta zer materialekin jokatu.

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
 Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Belarra
jatetxea
 948 450 306
 Amezitia karrika
DONEZTEBE

ITUREN

Aurtizko Ostatua errentan hartzeko azken eguna martxoaren 18a izanen da

Hasieran, bortz urterako emanen da, berte bortz urtez luzatzeko aukerarekin

Arkaitz MINDEGIA

Udalak otsailaren 11n egindako osoko bilkuran erabaki zuen Aurtizko Ostatua enkante publikora ateratzea. Hala, Aurtizko ostatua, hostala eta jatetxearen zerbitzua errentan esleitzeko baldintza hauek zehaztu zituzten:

Alde batetik, errentaren iraupena bortz urtekoa izanen da, eta gero, berte bortz urtez luzatzeko aukera egonen da. Alokairuak bi osagai izanen ditu. Batetik sari finkoa eta bertetik, hilabeteko kuota. Sari finkoa 6.000 eurokoa (horri %16ko BEZa gehitu behar zaio) izanen da eta 60 hileko kuenten bitartez ordaindu behar da, bakoitzean 100 euro eta BEZari dagokiona ordainduz.

Bertzalde, hilabeteko alokairuan, 400 euro eta %16 BEZa gostatuko da. Hori izanen da hasierako prezioa.

Eskaintzak aurkezteko epea martxoaren 18an bukatuko da. Egun hori baino lehen idazkaritzan eman behar da izena. Behin-behineko fidantza 1.500 eurokoa izanen da.

Joaldunak DVDan

Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo Departamentuak, Lizarrako Julio Caro Baroja Museoaren bitartez, DVDan bildu nahi ditu Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunen irudiak. Dagoeneko grabazioak eginak dira eta hurrengo urratsa DVDan ikustea izanen da.



ARTXIBOA

Ander Erasunek desafioa bota du

Ander Erasun Aurtizko aizkolariak desafioa bota die 19 urte bete gabe dituzten aizkolari gazte guztiei. Erronka kanaerdiko 16 enbor moztera izanen litzateke, eta pago egurra aizkolari bakoitzak erdibana jarriko lukete. Aizkolari bakoitzak 6.000 euro jokatuko lituzke. Apostua ixteko lekua eta ordua joan den ortziralara, martxoak 7, aukeratua zuen Tolosako Kantabriko jatetxe ezagunean. Berri hau idazterakoan eguna oraindik ailegatu gabea zenez, hurrengo aldizkarian erronka zein plazetan jokatu den, apostua zein egunetan jokatu den eta garrantzitsuena, apostua nork onartu duen —norbaitek onartzen badu— erranen dizuegu. Zorte on Ander!

Pitti
eskabazloak
Tel: 616 513 491

Mendiakidea etxea, 34 ZUBIETA

ttipi
ttapa

www.ttipi.net
info@ttipi.net
☎ (0034) 948635458

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA
Tel: 948 637 014
Dantxeko Plaza, 10 LESAKA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA LINDDURRENBORDA

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA
Teloria auzoa - LEKARIZ
948 402121 - 626 404317

LINDDURRENBORDA
Nabaz auzoa - LESAKA
948 637212

ESKUALDEA

'Uxue' eta 'Mikel' izan ziren 2007ko jaioberrietan eskualdean gehien errepikatu ziren izenak

Nafarroa mailan, aldiz, *Lucia* eta *Iker* erabiliak

ttipi-ttapa

Ttapi-ttaparen datuen arabera, aldizkariaren Nafarroako eskualdean 261 haur jaio ziren 2007an, 137 mutiko eta 124 neska. Mutikoen artean, *Mikel* izan zen izenik erabiliena, 11 kasurakin, *Oier* bigarrena 8rekin eta *Aitor* hirugarrena, 7rekin. 6 *Aimar* jaio ziren iaz eskualdean eta *Iker* izenak bosgarren postua eskuratu zuen gurean, 5 mutikorekin, *Oihan* bezalaxe. Nesken kasuan, ordea, erabiliena *Uxue* izan zen, zortzi neskei jarri baitzieten izen hori iaz, sei *Maddi* eta bosna *Ane*, *June* eta *Irati* jaio ziren 2007an.

Nafarroari dagokionean, *Lucia* eta *Iker* izan ziren 2007an, bertze urte batez, jaioberriei gehien paratu zitzaizkien izenak. Nesken kasuan, *Luciaren* ondotik, *Nahia* izan zen erabiliena, eta *Paula* hirugarrena. Ondotik, *Irene*, *Irati*, *Leyre* eta *Leire*, *Maria*, *Aneeta* *Sara* sartu ziren hamar lehenbizikoetan. Kontuan hartu behar da 98 *Leire* jaio zirela, baina erdiak y grekoaz eta bertze erdiak i latinoaz idatziak daudenez, ezberdintzat jotzela Nafarroako Estadistika Institutuak.

Mutikoen kasuan, *Iker* izan zen erabiliena; *Jabier* bigarrena, eta *Asier* hirugarrena. Ondotik, *Mikel*, *Aimar*, *Pablo*, *Unai*, *Aitor*, *David* eta *Daniel* zeuden hamar erabiltzen artean. Aipatu, *Jabier* eta *Xabier* izen bakartzat jotz gero, lehen postuan leudekela.

> Zure ordainketa-beharretara egokitzen den txartela.



FLEXIA MULTIOPCIÓN TXARTELA

> Flexia txartelarekin bi kreditu-aukera dituzu:

- Dendetan erosketak egiteko erabiltzen ahal duzu.
- Eskudirua pasatzen ahal duzu Flexia txarteletik zure aurrezki-kontura, kreditu-mugaren barnean, Rural Kutxaren edozein kutxazain automatiko erabiliz, 902 310 902 telefonora deituz, internetez www.ruralvia.com bitartez edota Rural Kutxaren edozein bulegora etoriz.

nire aukera



> www.ruralvia.com



Stockean dagoen autoren bat erosteagotik, Parrot esku libre



Martxoa

Km 0 eta auto ia berri



KANGOO EXPRESSION 1.5DCI 65CV

ABS • 2 airbag • Aire girotua • Ateen ixte-sistema zentralizata • Beira-igogailu elektrikoa
Alboko ate bikoitz lerrakorra • Irratia MonoCD



KANGOO AUTHENTIQUE 1.5DCI 80CV TC

ABS • 2 airbag • Aire girotua • Karter eta azpialde sendotuak • "Bide guztietarako" prestatua



KANGOO AUTHENTIQUE 1.5DCI 80CV TC

ABS • 2 airbag • Aire girotua • 4 gurpiletako trakzioa • Aire girotua



**KM 0
MODELO BERRIA**

LAGUNA EXPRESSION 1.5DCI 110CV

ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua • ASR ESP
Argi pizte automatikoa • Euri sentsoa • Irrati MonoCD MP3
MP3 • Abiadura mugatzailea • Larruzko bolantea
Esku libreko Bluetooth sistema



**KM 0
MODELO BERRIA**

LAGUNA DINAMIQUE 2.0DCI 150CV

ABS • 8 airbag • Aire-klimatizagailua • ASR ESP • Argi pizte automatikoa • Euri sentsoa • Irrati MonoCD MP3
Abiadura mugatzailea • Esku libreko Bluetooth sistema
Larrua/ehuna sport tapizeria • Sport Dynamique bolantea



MODUS PRIVILEGE

ABS • 4 airbag • Aire-klimatizagailua • ASR ESP • Argi pizte automatikoa • Euri sentsoa • Irrati MonoCD
Argien pizte automatikoa • Euri sentsoa • 4 gurpiletako trakzioa • Hainbat koloretakoak • Hainbat koloretakoak



MEGANE CONFORT-EXPRESSION 1.5DCI 85CV

ABS • 4 airbag • Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea • Irrati MonoCD
Auto bat baino gehiago ditugu aukeran



MEGANE DINAMIQUE 1.9DCI 130CV

ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua • Abiadura mugatzailea • Fokuen pizte automatikoa • Euri sentsoa
Irrati MonoCD • ASR ESP • Aluminioko gurpil-hagunak
Barruko ordenagailua • Larruzko bolantea



MEGANE DINAMIQUE 1.9DCI 130CV

ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua • Abiadura mugatzailea • Fokuen pizte automatikoa • Euri sentsoa
Irrati MonoCD • ASR ESP • Aluminioko gurpil-hagunak
Hainbat koloretakoak • Hainbat koloretakoak

Tel.: 948 580 431 - 948 580 436 - 608 977 685

Faxa: 948 580 973

ELIZONDO (Nafarroa)

garmendia@red.renault.es

renault hilabetea



TRAFIC 1.9DCI 80CV 4x4
Aire girotua • Irrati kasetata
• Auto bat baino gehiago



**TRAFIC COMBI 9 PLAZA PASSENGER
2.0DCI 115CV**
Ateen ixte-sistema zentralizatu
Beira-igogailu elektrikoa • Aire girotua • Irrati MonoCD
Erretrobisore elektrikoa • Auto bat baino gehiago



TRAFIC FURGON 1.9DCI 100CV 2.900 Kg.
Aire girotua • Eskuinaldeko ate lerrakorra
Irrati MonoCD
Zamak garraiatzeko zonalde sendotua



CLIO 1.5DCI 85CV
Aire-klimatizagailua • Abiadura mugatzailea
MonoCD • Barruko ordenagailua
• Euri sentsorea • Aluminiozko gurpil-hagunak
Hainbat koloretakoak



MODUS DYNAMIQUE 1.5 DCI 85CV
ABS • 4 airbag • Aire-girotua • Abiadura mugatzailea
Irrati MonoCD • Barruko ordenagailua • Aluminiozko gurpil-hagunak • Sabai panoramiko elektrikoa



CLIO EXPRESSION 1.5DCI 85CV 5 ate
ABS • 4Airbag • Aire girotua • Abiadura mugatzailea
Ateen ixte-sistema zentralizatu
Beira-igogailu elektrikoa • Erretrobisore elektrikoa
Irrati MonoCD • Hainbat koloretakoak



CLIO DYNAMIQUE 1.5DCI 105CV
Aire-klimatizagailua • Abiadura mugatzailea
• Euri sentsorea • Barruko ordenagailua
• Aluminiozko gurpil-hagunak • Barruko ordenagailua



SCENIC EXPRESSION 1.5DCI 105CV
ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea • Fokuen pizte automatikoa
Euri sentsorea • Irrati MonoCD • ASR ESP
Barruko ordenagailua



SCENIC DYNAMIQUE 1.5DCI 105CV
ABS • 6 Airbag • Aire-klimatizagailua • Abiadura mugatzailea
• ASR ESP • Fokuen pizte automatikoa
Euri sentsorea • Barruko ordenagailua • Aluminiozko gurpil-hagunak • Larruzko bolantea • Erdiko kontsola

LEITZA

Bai Euskal Herriari herri ekimenak ikurrina udaletxean ezarri behar dela berretsi du

Hasteko, egun seinalatueta paratzea proposatu du

Joseba URKIOLA

Leitzako Bai Euskal Herriari herri ekimenak 2005ean hainbat zeresan sortarazi zuen ikurrinaren afera berriro eskuetan hartzea erabaki du. Euren iritziz, orain arte afera nahiko baztertua egon da eta gutxi ahaztu duten arren, komenigarria da bere garrantzia ematea.

Ekimenaren ildo nagusiak lau puntutan bereiztu dituzte. Helburu nagusiak Euskal Herriaren memoria historikoa berreskuratzea, EHNAren bitartez Euskal Nazioetasuna bultzatzea, euskal ikurren defentsa eta edozein esparrutako euskal federazioak bultzatzea dira. Une honetan ikurraren defentsari eman nahi dio garrantzia eta ikurrina berriro udaletxean zintzilikusi nahi du. Horretarako bi urrats nagusi eman nahi dituzte. Batetik, ikurrina udaletxean tarteka eta egun seinalatueta paratzea proposatu dute: Tiburtzio Donearen jaietan, ihoteetan, Aberri Egunean, martxoaren 8an... Hauen batera, euskaldunak ez diren Hispanita-

te edota Konstituzioaren Eguna bezalako data seinalatueta ere ikurrina ezartzea oso garrantzitsua delakoan daude.

Bestetik, herriko eragile desberdinen hausnarketa eta planteamenduak ere garrantzitsutzat jotzen dituzte, eta eragile bakoitzak ikusten dituen gabezia eta onurak aztertzea ikurrina Udaletxean ikusteko garrantzitsua izan daiteke.

Indar Gorri Leitzan

Martxoaren 1ean Indar Gorri talde ezagunak festa berezia antolatu zuen Leitzan. Osasuna futbol taldearen jarraitzaile koadrilak aurten goan 20 urte bete ditu eta hori tarteko, Nafarroako hainbat herrietan jaialdi berezi batzuk egingen ari dira.

Leitzan Txaragorri da Osasuna animatzeko sortu zen taldea. Euretako asko Osasunak etxean jokatzen duenean Indar Gorrikoekin baten dira eta bi jarraitzaile taldeen arteko harremana oso ona da.

Martxoaren 1eko arratsalde partean hasi zen



UTZITAKO ARGAZKIA

Ihoteetan Herriko Etxeko balkoian izan zen ikurrina.


egitaraua, leitzarbatzuek Atakabeltz Gaztetxean egin zieten ongiatorriekin. Gero, herrian potoan ibili ondoren, Rebekeka Puesta, Mr. Moshing, Dkuajo eta Memo taldeen txanda izan zen.

Herri Krosa apirilaren 20an

Aste Santuko opor goiztiarrak amaitu eta hiru asteburutar egingen da Leitzako Herri Krosa. Aurrera Kirol Elkarteak antolatutako lasterketak 30 urte beteko ditu aurten. Hori dela eta, elkarreko arduradunek goiz partean egingen diren ohiko lasterketa eta sari banaketek gain, bestelako ekitaldi berezi batzuk antolatuta dituzte. Aipagarrienen artean, herritarrei zabaldu zaien lehiaketa baten bitartez, lasterketako logotipoa edo irudia aldatuko dute.

'Luze' finalean

Bigarren urtez jarraian, Miel Mari Elo-



ARGAZKIA: AMAZABAL INSITUUA

II. Mikro Ipuin Lehiaketaren festa
Otsailaren 20an Leitzako Zinean 2008ko Mikro Ipuin Lehiaketaren sariak banatu ziren. Aurten go edizioako saridunak urtaril erdian eman ziren arren, otsailaren 20 arte ez zituzten sariak banatu. Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela argitaletxeak Udalbideren laguntzarekin antolatutako ekitaldiak saridunekin batera Kirmen Uribe idazlea izan zuen protagonista. Bera arduratu baitzen, besteak beste, Mikel Onsalo aresoarrari eta Patricia Vicente eta Judith Saizar leitzarrei zegozkien garaikurrak emateaz.

gi Luze Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean izanen da. Martxoaren 15ean jokatuko den egun handirako txartela Berako saioan lortu zuen leitzarrak. Finaler-

dietako azken saio horretan garaipena Jon Barberena elizondarrak lortu zuen 339 punturekin. Bere atzetik, 310 punturekin leitzarza sailkatu zen.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
Tfnoa: 948 510 086 • 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

ALBERTO RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

ttipi
ttapa
☎ (0034) 948 635458

ARESO

Jose Luis de la Mata psikologo eta maisu izandakoa omendu dute bigarren aldiz

Izargain psikologo taldeak herrian duen etxean egin zuten ekitaldia

Juana Mari SAIZAR

Psikologo eta maisu izan zen Jose Luis de la Mata Impuestori bigarren omenaldia egin zioten otsailaren 23an berak sortutako Izargain esku hartze psikosozialerako euskal kolektiboko kideek Areson daukaten etxean, Erasonean. Joan den urtean egin zuten lehen omenaldian, bere omenez, etxeari Erasonea soilik deitu beharrean, Erasonea de la Mataena izen berria jarri zioten.

Sokatira

Azkenean osatu da sokatira taldea, eta hainbat kide berriekin dagoneko entrenatzen hasiak dira astean hirutan. Azken urteetan bezala, lur gaineko modalitatean ari-tuko dira.

Emakumeen Eguna

Hilaren 8an, Emakumeen Eguna ospatzeko, Errioxako bodega batera joan ziren hainbat herritar, Laguardia-Biasterri herrira, hain zuzen.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Euskararen Eguna udako eguraldiarekin ospatu genuen martxoaren 1ean.

Enparantza, eliza eta erlojua bisitatu eta Villa Lucia ardotegira joan ziren ondoren. Bazkaldu eta gero, Frank Gehry arkitektoaren Marques de Riscal bodegan egindako obra ikusi zuten.

ARGAZKIA: J. M. SAIZAR

Gurasoek eskatuta, hamabostero irakasleekin hainbat gai jorratzen hasi dira umeen harremanak hobetzeko. Gaian adituak ekartzeko pentsatzen ere hasiak dira.



ARANO

Urteko mus txapelketa antolatu dute Kontzejuko jabe berriek

Martxoaren azken ostiralean hasiko da

Kontxi KLABER

Pozgarria da herritarrentzat taberna berriz ateak irekiekin ikustea. Lau urtetan bi bikote pasa ondoren hirugarrenak hartu du orain. Otsailaren hondarreko egunean zabaldu zuten taberna Imanol eta Ainhoa jabe berriek, eta ongi etorri gisara prestatua zuten luntxara jende ugari hurbildu zen. Ongi eza gutzen du Imanolek herrira eta bertako jendea, eta hemengoa dela ere esan liteke. Oraingoan

luzaroan irekia egon dadin nahi genuke eta zorerik onena opa diegu.

Lanean ere hasi dira, eta hala, urteko mus txapelketa ere antolatu dute. Hilabeteko azken ostiralean izango da. Izen ematea bi egun lehenago egin beharko da eta bikoteko 15 euro ordaindu. Sarietarako dagokionean, berriz, lehenak izen ematean bildutakoaren %35a jasoko du eta 5 puntu; bigarrenak %20a eta 4 puntu; hirugarrenak %15a eta 2 puntu, eta

laugarrenak puntu bakarra eskuratuko du. Izen ematean bildutako gaitzatzeko %30a boterako izango da.

Bertzalde, martxoaren azken ostiraletik 2009ko otsailaren azken ostirala bitarte puntu gehien lortzen dituenak botearen %80a eramango du, eta bigarrenak %20a.

San Rokekoen bilkura

Otsailaren azken larunbatean egin zen San



ARGAZKIA: KONTXI KLABER

Imanol Kontzejuko nagusi berria da Ainhoarekin.

Roke elkarteko bazkideen urteko bilera eta 66 bazkideetatik 59 bildu ziren. Jadanik urteak darमतान zuzendaritzak boluntariorik ez zegoela ikusirik beste urtebetaja-

rraitzeko konpromisoa hartu zuen. Urteko balantzea egin eta bazkide baten bajaren berri eman zuen. Bilera ostean gehientsuenak bertan gelditu ziren afaltzen.

GOIZUETA

la 1,4 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak aurtengo urterako

Horrez gain, hiru ordenantza berri onartu ziren otsailaren 25eko plenoan

Esteban AROTZENA

Otsailaren 25eko plenoan 2008ko aurrekontua onartu zuen Udaltzako aho batez. la 1,4 milioi euroko dirusarrerak eta gastuak aurreikusten dituzte Herriko Etxean, 1.374.845 eurokoak, zehatzago esanda.

Gastuei gainbegirada emanez, esan dezagun, herriko inbertsioak (301.700 euro), mendietakoak (300.000) eta langileen nominak eta gizarte aseguruak (238.000 euro) direla garrantzitsuenak. Diru sarrerei dagokionean, berriz, urtero bezala aipagarriena men-

ditik heldu dena da, lote ezberdinen salmentarengatik 455.730 euro eta birlandaketa, garbiketa eta abarrengatik Nafarroako Gobernutik beste 195.000 euro jasoko baitira.

ORDENANTZA BERRIAK

Aurrekontuaz gain, hiru ordenantza ezberdin onartu zituen plenoak otsailaren 25ean, aho batez hauek ere gainera. Batek kanposantuen erabilera arautzen du, besteak udal retroeskabadorarena, eta hirugarrenak Herriko Etxean ematen eta tramitatzen diren agirien tasak.



ARTXIBOA

Ordenantza berriak, besteak beste, kanposantuko tarifak arautzen ditu.

Bakoitzaren puntu interesgarrienak aipatuz esanen dugu, adibidez, hilobi bakoitzean paratuko den hilarriak 50 zentimetro zabal eta 60 luze izan beharko dituela gehienez. Tarifak ere arautzen ditu ordenantzak. Horrela, ehorzteagatik 100 euro ordainduko dute herritarrek eta 400 kanpotarrek. Erraustentzat lekua prestatuko denez kanposantuan, honi ere prezioa jarri zaio: herri-

koentzat 20 euro eta kanpokoentzat 200.

Hilerriarena ez ezik, puntu askoz osatutakoa da retroeskabadoraren ordenantza. Beraz, prezioen berri bakarrik eman dugu hemen: 122 euro eta erregaia zortzi orduko lanegun bakoitzeko.

Fotokopiak, faxak, ziurtagiriak, konpultsak, ezkontzak, arma txartelak, artxiboaren kontsulta eta beste hainbat zerbitzurengatik ordain-

du beharrekoa arautzen du goian aipatutako beste ordenantzak.

Ibon Elizegi presidente

Ibon Elizegi izanen da ondorengo bi urteetan Umore Onako presidente martxoaren 1eko ohiko asanbladan hartutako erabakiaren arabera. Elkarteko bazkide izan nahi zuten zazpi herritarren eskaerari ere baietza eman zien asanbladak.

www.ttipi.net

ERREZETA BILDUMA
tradiziozko errezeta
gozagarriak



ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizalua
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

Non jantzi zure barnealdea

BIDEAN

Comedias, 8-10
IRUÑA



BAZTAN

20. urteurrena ospatuko du Baztango Kirol Taldeak martxoaren 29an Elizondon

Jasotako dirua lehen mailako taldearen igoera faseko partida Elizondon jokatzeko erabiliko da

ttipi-ttapa

Ez bat gehiago eta ez bat guttiago. 20 urte bete ditu aurten BKT Baztango Kirol Taldeak. Horren harira, besta eguna antolatu dute martxoaren 29rako. Elizondoko Lurdantzalekuan izanen dira ekitaldiak eta adin guztietako jendeak izanen du gozatzeko aukera. BKT, Lur eta *define.com* dira egunaren antolatzaileak.

Arratsaldean umeentzako pailazoak izanen dira eta ilunabarrean gaztetxoendako diskoteka *ligh*t. Gauz kontzertuak izanen dira Mister Fylyng eta Okulto taldeekin, eta ondotik diskoteka.

Egun horretan biltzen den diruarekin BKTko infantilak eta gaztetxoak Espainiakotxapelketa jokatzeria joanen dira, euren ligatan bigarrenak gelditu baitira. Eta bertetik, lehen mailako taldeak Ohorezko Mailako igoera fasean sartzea lortzen badu, igoera fasea Elizondon jokatzeko erabiliko da diru hori. Igoerako partida non jokatu enkantearen bitartez erabakitzen da, eta eskaintza 12.000 eurotan hasten da.

Xorroxin irratia eskoletan

Urte bateko deskantsoa hartu ondoren, go-



ARGAZKIAK: ARANTXA ZELAIA

Berroetako Asteburu Kultural arrakastatsua

Otsaileko azken asteburuan egin zen Berroetan Gure Ametsa Elkartek antolatutako II Asteburu Kulturala. Ortzilerian hasi eta igandera bitarte adin guztietako jendearentzako ekitaldiak izan ziren: ipuin kontalariak, papera birziklatzen eta egiten ikasteko tailerrak, txokolatada, mus txapelketa, fruitarbolon kimaketa ikastaroa, hitzaldiak... Larunbat arratseko kantua afarian 50 lagunetik goiti bildu ziren eta gaua giro ederrean pasatu zuten Joxe Angelek lagunduta. Igande goizean behorrak hezitzen Koi-kili Fagoaga lesakarrak ikuskizuna eskaini zuen, eta ardien ile mozketa-rena eta ardi zakurren erakustaldia ere egin zen. Bazkariarekin akitu zen Asteburu kulturala, antolatzaileen hitzetan, arrakasta haundiarekin.

gotsu itzuli da Xorroxin eskoletarat. Nahiko lanpetua zegoenez urte sabbatkoa hartu, eta modu lasaigoan hemen da be-

rriz. 2007/2008 ikasturtean eskola guztietaratan beharrean, gutxiagotara hurbildu da: Bortzirietan hasi eta Baztanera

etorri da, eta Bertizararena eta Malerrekan akituko du ikasturtea. Eskola bakoitzean aste bat pasatuko du.

POTTOKI
Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnua: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com
Astehenerdik larunbatera:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iburriotz eztoa · Tfnua: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAURI

I.E.S. LEKARÓZ ELIZONDO B.I.I.L.
Diputazio Etorbidea, s/g • 31700 ELIZONDO (Baztan)
Kudeaketa Administratiboa
Erdi Mailako Zikloa
ORDUTEGI MOLDATUA GOIZEZ!!
NORENDAKO: Adonako, markatzen, lagaketa, irakurketa eta dokumentazioa eta abarera eta ikaslearen elkarretarata
AURREINSKRIPZIOA: Martxoaren 27tik Apirilak 7ra
948 58 18 05 948 58 18 40
lekaroz@pote.clavara.es

BURKAITZEA
- ostalau
- erretegia
Zugleramurdiako bidea, 3 km
948 599 280 · URDAZUBI

Eskisaroi
Jatetxea
Jaime Urrutia
Tfnua: 948 580 013
ELIZONDO

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Brailio Inarte kamika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Baztandarren Biltzarra eguna iragarriko duen kartel lehiaketa abian

Lanak aurkezteko epea martxoaren 31n akituko da

Maite OTEIZA

Uztailaren 20ko Baztandarren Biltzarra bes-ta haundia iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketa zabalik dago, eta parte hartu nahi dutenentzako oinarriak ere jakinarazi dituzte: Kartel guztiek *Baztandarren Biltzarra 08. Elizondoko uztailaren 20an. Eskuarak bazten gaitu* testua eduki beharko dute, eta 50x70 zentimetrotako neurria izan beharko dute. Lehiaketara aurkezteko azken eguna martxoaren 31ko eguerdiko 12etan akituko da. Kartelak bi modutan aurkeztu ahal izanen dira: Baztandarren Biltzarra Elkarte, 22, 31700 Elizondo helbidera bidaliz edo Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean utziz, bulego orduetan. Ohi bezala, kartel sari-tuaren egileak elkartearen esku utziko ditu kartelaren erreprodukzio eskubideak, eta elkar-tearen baimenik gabe ezin izanen dio kartela-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Mende osoa bete du M^a Luisa Perotxena
Iruritako Mendiburuako M^a Luisa Perotxena 100 urte bete ditu aurten, eta eguna Elizondoko San Francisco Joakin Iriarte zahar-etxean ospatu zuen hango lagun, langile, udal ordezkari eta bertaratu ziren iruritarrekin. M^a Luisa Perotxena gazte-gaztea zela Madrilerat gan zen lanera. Lan egin zuen familiako semea enbaxadorea izan zen eta European zehar ibili zen berarekin. 80 urterekin sorterrirat itzuli zen deskantsatzeko asmoz, eta orduan ezagutu genuen, hainbertze aldiz aditua genuen eta enbaxadore batekin lanean ibilia zen M^a Luisa, andre umil eta fina. Aunitz urtez M^a Luisa!!

ri bertzelako erabilpenik eman.

Epaimahaiak apirilaren 4tik aitzinera jakinaraziko du sarituaren ize-na, eta irabazleak 500 euro jasoko ditu. Aipatu, interesatuek nahi adina lan aurkeztu ditza-ketela, edozein teknika zein kolore erabiliz.

Medikuen geldialdia

Baztan-Urdazubiko mediku eta erizainek beren egoera profesionala zein den ezagutzeko Arizkunenean agerraldia egin zutenetik, hilabeteak pasatu dira baina inongo irtenbiderik aurkitu gabe. Egoera berdinean

daude, lan eguneko ordutegia, guardiak eta larrialdiekin osatua, profesional eskasiaren ondorioz, paziente bakoitzak behar duen denbora ezin emanez. Sindikatuak deiturik otsailaren 19an geldialdia egin zuten Elizondoko Osasun Etxean bertako langileek.



PERTSONAIA

Santiago GARMENDIA

Iñigo Aristaren lehiaketan saria lortu du bere idazlanarekin

Elizondoko San Francisco Javier Ikastetxe Publikoko Santiago Garmendia Muñoz ikasleak Iñigo Arista erakundeak antolatutako idazlan eta marrazki lehiaketan saria lortu du bere idazlanarekin. 6. mailan ari da Santiago Garmendia, eta lehiaketaren XXVII. edizio honetan 150 ikastetxeetako 4.000 lan baino gehiagoren artean aukeratu ziren 30etan dago berea. Bertzalde, ikasturte honetan San Francisco Javier Ikastetxeak 'Escola Bidaia-riak' ekimenean parte hartu du, eta eskolako ikasleak Andaluzian izan dira.

LES. LEKAROZ ELIZONDO B.H.L.
Diputazio Etxidea, s.g. • 31700 ELIZONDO (Baztan)

Administrazioa eta finantzak
Goi Mailako Zikloa

ORDUTEGI MOLDATUA GOIZEZ!!

NOBENDAKO: AURREINSKRIPZIOA:
Asteazka, martxoak, lapelak, irakatsa eta berrogeialdiak eta larriak eta beste ebentuetan Martxoaren 27tik Apirilak 3ra

948 58 18 05 • 948 58 18 40
les@les.com • pte@cibavara.es

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

- Zurich Asegururak
Autzo, etxebizitza, lastri eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, bodega, pisu, etab... salmenta eta alkatua
- Gestoria
Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karmetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO
Tfnua eta Faxa: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

I.E.S. LEKAROZ ELIZONDO B.H.I.

Bigarren Hezkuntza Institutua



LEKAROZ

Uharte auzoa, z/g
31795 LEKAROZ (Baztan)

☎ 948 58 18 03

☎ 948 58 18 36

✉ ieslekar@pnte.cfnavarra.es

🌐 <http://www.pnte.cfnavarra.es/ieslekar>



ELIZONDO

Diputazio Etorbidea, z/g
31700 ELIZONDO (Baztan)

☎ 948 58 18 05

☎ 948 58 18 40

✉ ieselizo@pnte.cfnavarra.es

🌐 <http://www.pnte.cfnavarra.es/ieselizo>

IZEN EMATEA

DBH eta Batxilergoa: martxoaren 31tik apirilaren 7ra
Erdi Mailako Lanbide Heziketa: martxoaren 31tik apirilaren 7ra
Goi Mailako Lanbide Heziketa: martxoaren 31tik apirilaren 7ra
Lanbide Hastapena: ekainaren 9tik 25era

OHARRA: Informazio gehiago nahi izanez gero,
jar zaitez gurekin kontaktuan

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Dantxarineako zeharbideko lanak onartu ditu Urdazubiko Udalak

Aldeko lau botoekin eta oposizioaren kontrako hiruekin

Margari eta Koro

N-121B errepidean Dantxarinea parean eginen diren urbanizazio-brak onartu ditu Urdazubiko Udalak, inguru horretan sortzen diren trafikoa arazoak konpontzeko helburuarekin. Aldeko lau botoekin eta oposizioaren kontrako hiruekin (Andres Diarassarry, Miguel Ariztia eta Daniel Elizaldere-nak) onartu zen proiektua otsailaren 29ko bilkuran.

Eginen diren lan eta aldaketan artean, bertzeak bertze, Dantxarineako zubiaren eta biribilgunearen diseinua aldatzea aurreikusi da. Hartara, Iparraldeko Ur Konfederazioaren aholkuei segituz, oraingo hustubideen baldintzak bermatuak geldituko dira uste da eta uholde arriskueta babestuta. Gisa berean, frontoia-aren alboko paretaren zati bat botako da, uraren jarioa errazte aldera; Barrela Etxera doan bidea

ere erreka bazterretik urrunduko da.

Bertzalde, biribilgunearen iparmendebaldera dagoen espaloia eta lubeta desagertaraziko dira eta horren ordez harri-lubeta eraikiko da.

Udalak erabakitako neurri hauek Iparraldeko Ur Konfederazioari jakinaraziko zaizkio.

Zugarramurdiko lanak akituak

Erdizka geldituak ziren Zugarramurdiko lan batzuk finitu dira dagoeneko: autoek abiadura murrizteko koskak pintatuak daude eta behar diren seinaleekin markatuak gelditu dira.

Bertzalde, gan den udaberrian haurrendako parke berria ireki zen, baina sasoi pasatua zenez, ez ziren zuhaitzak landatu. Orain bai. Hortxe jarri dituzte 10 zuhaitz kokkor, udako eguzkiari itzal pittat egiteko. Parke honetan ataka berria jarri da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urdazubiko Etxeberriko zubia eraberritua

Joan den urteko maiatzeko uholdearen ondorioz, bertze hainbat inguru kaltetuen artean, Monastegiaren ondoan dagoen Etxeberriko zubiak ere ondorioak jasan zituen. Lehendik ere hondatua zegoen baina uholdeak erabat hondatua utzi zuen. Duela bi hilabete inguru akitu ziren konpokena lanak eta arras polita geratu da. Uholdeko gainerako gastuekin batera ordainduko da.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Oparien Xokoa Zugarramurdin

Aste Saindurako denda berria irekiko digute herriko plazako Maxintxenea etxean. Oparien Xokoa du izena eta Lurdes Karrikaburuk paratuko du martxan. Eta izenak dion bezala, turistendako espresuki diren opari, liburuxka eta oroigarriak salduko dira.

Okindegia	Jatetxea	
		
<p>OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan) Espezialitatea parrillan erretako jakietan Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!</p>		<p>Ordoki Industrialdea Tfnoa: 948 453 403 31713 ARIZKUN</p>



BAR-OSTATVA MON

ZATOZTE TRAGOA EDATERA

ESTANCO - TIBICO DENDA
 ANZIN-BORDA
 VRDIX - VRDIZVBI

ARKUPEAK

Gimnasia erakustaldia antolatu du Arkupeak elkarteak martxoaren 27rako

Apirilean eta maiatzean Italiara eta Benidormera joanen dira

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak urtero antolatzen duen gimnasia erakustaldia martxoaren 27an egingen da Berako kiroldegian. Eta ondotik bazkaria izanen dute. Gimnasia egin behar duten elkarteko bazkideek doan izanen dute bazkaria. Gainerakoek, hau da, gimnasiarik egiten ez duten bazkideek edo bazkide ez izanda gimnasia egiten dutenek, 30 euro ordaindu beharko dute. Aurtengoa berezia izanen da besta, izan ere elkarteak omenaldia eskaini nahi die 2007an hil ziren mendizale lesakar eta beratarrei, Unai Etxepare, Luis Mari Pikabea Loro, Xabier Saralegi eta

Xabier Zubieta Zubiri. Horrez gain, eskerrona agertuko zaio Nafarroako Emergentzia Agentziako zuzendariari, David Sainz Gimenezi, mendizale hauen gorpuak sorterrira lehenbailehen bueltatzeko egin zuen lan bikainarengatik.

Eguerdiko 12etan hasiko da gimnasia erakustaldia. Ondotik eskainiko zaie omenaldia hildako mendizaleei. Erakustaldiaren eta omenaldiaren ondotik, autobusak abiatuko dira jatetxetara. Aurten ere Zailain eta Zubiondon egingen da bazkaria. Bazkalondoan, dantzaldia izanen dute eta arratseko 8etan autobusak etxera bueltan abiatuko dira.



ARTXIBOA

Arkupeak-eko kideek euren erakustaldia eskainiko dute Berako kiroldegian.

ITALIARA ETA BENIDORMERA BIDAIAK

Arkupeak erretiratuen elkarteak apirilaren 21etik 30era Italiara eta maiatzaren 10etik 24ra Benidormera bidaiak antolatu ditu. Italiako bidaiari dagokionez, apirilaren 21eko goizaldean abiatuko dira Nimes aldera. Italian, hiru egun emanen dituzte Erroma hiriburua bisitatzeko, baina aitzinetik Milan, Venecia, Lido de Jesolo, Florenzia, Montecatini eta Asis bisitatuko dituzte. Erroma ikusi ondotik, Pisa eta

Italiako Riviera bisitatu ditzuzte, berriz ere Nimesen barna Doneztebera itzultzeko. Gutti gorabeherako prezioa 750 eurokoa izanen da logelako bikoitzean eta norbait bakarkako logela nahi balu, 188 euro gehiago ordainduko litzuzke.

Benidormera maiatzean egingen da bi asteeko bidaiak. Maiatzaren 10ean aterako da autobusa Irundik eta errepide nagusian hartuko ditu bidaiariak. Joaneko eta etorrerako bazkaria bidean egingen dira eta ho-

ri ere prezioan sartua dago. Benidormeko Fenicia hotelean hartuko dute ostatu eta 120 pertsonentzat lekua duela kontuan hartuz, muga pasatuz gero, denen laguntza beharko dela jakinarazi dute, ahalik eta irtenbiderik egokiena aukeratzeko.

Bidai osoaren prezioa pertsonako 495 eurokoa da logela bikoitzean. Gela banakakoa baldin bada, 695 euro guzira. Aurten, pentsio osoa, ura eta ardoarekin sartua dago prezioan.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
albornoak
mantelak
edredoi nordikoak
kuxinak
ohe estalkiak
maindireak
toailak
edredoi-azal nordikoak
2008ko udaberriko kolekzio berria
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



SENPERE

Julien Fagoaga gaztearen heriotzak samin haundia sortu du herrian

Hauteskundeetako emaitza osoak bildu ditu Ttipi-ttapak

Franck DOLOSOR

Julien Fagoaga herritar ezagunaren hiltzeak tristura handia sortu du Senperen. Bere etxean jasan duen ez behar baten ondorioz zendu da berriki. Bere ehorzketak martxoaren 4an egin ziren eliza jendez mukuratu betea zelarik.

Familiak eta ehunka lagunek agur beroa bezain hunkigarria eskaini zioten. Ilehoria eta begi urdinak zituen mutilak milaka oroitzapen on utzi dizkio Senpereko gazteriarri. Eskolan lagun anitz izan du beti Julieneke eta eskolatik kanpo ere ez da sekula geldirik egon. Ibarrungo besta komitean eta pilota plazetan ere adiskide anitz izan du.

Ibarrungo semea gusturat aritu da beti pilotan baina kirolean zituen dohainak errugbi zelaietan erakutsi ditu bereziki, eta hori ttipi-tti-

kitatik. Julien gibelego jokalaria paregabea zen eta harro janzten zuen hamabortzgarren zenbakia duen atorra. Ator hau hil kutxaren gainean ezarri zioten preseski azken agurraren egunean. Nehork ez du sekula ahantziko Senpereko koloreak aski gora eraman zituela bere lagunekin 2003an Federal bi sailerat upatu zelarik SPUC taldea, urte osoan emaitza onak erdietsi ondoan. Julieneke joateak golpe latza eman dio gure errugbi taldeari. Julien 1977an sortu zen eta urte horretako hiltzen den lehen senperrarra da. Iazko uztailean, 30 urte bete zituzten adiskideen elgarretaratzean parte hartu zuen. (Lerro hauek izkiriartzen dituenak orduan ikusi eta mintzatu zuen azken aldikotz). Mota anitzeko omenaldiak merezi ditu Julie-



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Giro ederrean inauteriak

Otsailaren 23an, egun koloretsua ospatu zen inauterien karietat, eta ez zen moztorra eta umorerik falta izan.

nek eta aipagarria da Sebastien Gonzalezek egin ziona pilota partida bat irabazi ondoan Barriolarekin, Eibarren. Azkaindarrak Arretxean ikasi zuen eta kolegio hortan ongi ezagutu zuen Fagoagatarren bi garren semea. Euskal

Telebistako Xabier Euzkitzeren mikroan garai berriaz mintzo zelarik, Gonzalezek besarkada beroa luzatu zien Julieneke familiari eta lagunei. Martxoaren 10ean, 31 urte bertzerik ez zituen beteko Julieneke. Gazteegia, du-

darik gabe, betiko alor goxorat gateko...

Hauteskundeetako emaitzak

Hauteskundeetako emaitza osoak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. Senpereko emaitzak 8. orrialdean daude jasoa.

LA VILLA
JATETXEA
IGANTZI • Tfno: 948 63 32 90

HERBIBO
ETXEBE
EDXNTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maixen eta Véronique
CABA

ITURRALDE
pvc & aluminio
667 264 025 • 948 581 967
maxene@terra.es

ERRETE-GIA ORDOKI LIKOREAK
Parrilan egindako haragi eta arrainak
Tel. 948 453 410 Fax. 948 453 378 - ARIZKUN

SARA

Dena prest da XXV. Idazleen Biltzarrerako

Bazko astelehenean egingen da, goizeko 10etatik aitzinera

Xan **HARRIAGUE**

Idazleen Biltzarra bazko astelehenearekin ospatuko da, eta aurtent 25 urte beteko ditu. Usaian bezala, 110 bat idazle, argitaletxe, elkarte eta egunkari bilduko dira kiroldegian. Berrikuntza gisa, margo eta argazki erakusketa Lurberri gelan izanen da ikusgai. Aurtengo Biltzarreko Saria Xipri Arbelbide eta Txomin Peilleni emanen zaie. Eusko Ikaskuntzako dirulaguntzak eta bekak ere egun horretan banatuko dira ikertzen ari diren 10 gazteri. Bestalde, Piarres, Charriton, Jon Casenave eta Henri Duhauren azken liburak aurkeztuko dira. Biltzarra goizeko 10etan hasiko da, eta atak 17:00etan hetsiko ditu.

Lasterketa

Sarako Korrika Trail lasterketa heldu den martxoaren 30ean jokatuko da. Pixkanaka proba bere bidea egiten ari da, eta aurtengoa III. edizioa izanen du. Lasterkariak plazatik abiatuko dira Larruneraino, eta handik beheiti Gondendiagaraino (Benta Beltza). Han itzulia emanen dute, eta kasik etorritako bidetik joanen dira errebotean izanen den helmugara. Orotara 25 kilometro dira. Informazio gehiago, www.sarakorrika.com web orrian atzeman daiteke.

Joko Garbi

Euskal Herriko ezker paretako joko garbikotxapela jantzi eta gero, benjamin mailan aritzen diren Thomas Peyresaubés eta Mathieu



ARGAZKIAK: LOL

Marise eta Mixel Dibar mus txapelketako garaile

Marise eta Mixel Dibar dira aurtengo Sarako muslaririk onenak. Herriko Etxeko Edantegiko txapelketa irabazi dute, finalean Pierre Arotzarena eta Panpi Etxeberria menean hartuz. Hirugarren postua Peio Iziaga eta Beñat Harregirentzat izan zen. Bigarren mailan, Jamatit Amestoy Sipa eta Pierre Etxeberrik irabazi zuten. Sailkapen fasean ez ziren hain ongi aritu, eta beraz II. mailarako baizik sailkatzea ez zuten lortu. Hortik aitzinera partida guzaki irabazi zituzten baita finalean Odile Aiez eta Celine Guridiren kontra ere. III. mailako finalean, Claude Etxegarai eta Pantxo Orgogozo, Jon Etxebeste eta Jon Paternerren aurka aritu ziren, baina eskarmentua alde zutela lehenak nagusitu ziren. Argazkian lehen eta bigarren mailako txapeldunak ageri dira, Edantegiko etxekoandre Maixan Santesteban eta Veronique Iturriarekin.

Arrietak gauza bera egin dute Frantziakoarekin. Otsailaren 16an etxean ari zen Paueko taldea

erraz menperatu zuten 40 eta 16. Indarrez eta teknikaz hobeak izan ziren, eta erreboteko txa-

pelketan ere faboritoak izanen dira. Taldea osatzeko hauekin arituko da Anthony Azkarraga.

Gru T n l r T l
I CHE
 M l r r k S. L.

2 UK ZE ITZU
 EIL T KI N ET ETXE N

T SL KI U E, N STI ET
 I UNG S IT LET TI KE ZEIN HE IET

L E K, HIL I K, ESKEL K,
 E USKET K ET ZE ITZU S & I K

r	37
S N J SE EIL T KI	
n zt	37
S N E EIL T KI	
El z n	5 1 5
FUNE I ZI N T N T I ZI N	
L tz	37
LETTZ K EIL T KI	
L s k	37
LES K K T N T I	



EZKONTZAK

Jorge Failde Etxeberria eta **M^a Rakel Bengoetxea Etxeberria**, Iruñekoak, otsailaren 16an, Etxalarren.

SORTZEAK

Oihana Sarratea Etxeberria, Almandozkoa, otsailaren 11n.

Gartxot Iribarren Aleman, Amaiurkoa, otsailaren 19an.

Jose Luis Jimenez Jimenez, Elizondokoa, otsailaren 23an.

Aimar Rekarte Iturriria, Erratzukoa, otsailaren 26an.

Andrea Seisededos Ortiz, Lesakakoa, otsailaren 21ean.

Xabier Balberde Leitza, Lesakakoa, otsailaren 19an.

Baptiste Jacques, Sarakoa, urtarrilaren 28an.

Batiste Pereira, Sarakoa, otsailaren 5ean.

Eneka Pelletrat Xurio, Zugarramurdi-koa, martxoaren 4an.



HERIOTZAK

Martin Jose Telletxea Sarratea, Oiergikoa, otsailaren 20an, 82 urte.

Patricia Larragain Clave, Elizondokoa, otsailaren 25ean, 85 urte.

Juan Gortari Ugarte, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 21ean, 77 urte.

Sor Concepcion Castillo Gonzalez de Mendibil, Beran, otsailaren 22an, 80 urte.

Pedro Sarratea Gamio, Narbartekoa, otsailaren 23an, 69 urte.

Juana Luisa Mindegia Maiora, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 23an, 79 urte.

Antonio Rodriguez Elizegi, Leitzakoa, otsailaren 24an, 89 urte.

Felicitas Ariztia Ibarra, Elizondokoa, otsailaren 26an, 95 urte.

Carlos Jaimerena Elizalde, Amaiurkoa, otsailaren 29an, 77 urte.

Fernando Oiartzun Iriarte, Leitzakoa, martxoaren 2an, 80 urte.



Periko Mariezkurrena Telletxea

Ituren, 2008-02-17

*Urrozko Berraburuko
baserriko semea
Iturenera etorri eta
hartu zendun andrea
Bertan hazi famili bat
parerik gabea
Azken hatsa eman arte
lanerako beti borondatea
edozein etortzen zela ere
beti zabalik etxeko atea
laguntzarik behar zuenarentzat
beti esku zabala eta luzea
Zure ardientzat artzai bikaina
eta herriarentzat joaldun hobea
famiak eta lagunak ez zaitugu
ahaztuko Periko maitea*

ZURE LAGUNAK



Iñaki AIZPURU IRIBARREN

Otsailaren 17an hil zen, 43 urte zituela

*Momentu gogor hauek pasatzen
lagundu diguzuen guztiei,
eskerrak eman nahi dizkizuegu.*

AIZPURU-IRIARTE FAMILIA



Mikel MARTIARENA BENGOETXEA

Kastejonon hil zen otsailaren 19an,
27 urte zituela, istripu baten ondorioz

*Hainbeste irri elkarrekin egin dugu
eta orain hainbeste negar utzi duzu.*

*Mikel, hutsik utzi duzu
Pikoketa baserri maitea.*

Agurrik ez, geroarte baizik

ZURE ETXALARKO FAMILIA

Jose Gabriel-Maialen
Jose Miguel-Nagore
Mirian-Fermin

HERRI KIROLA

Larretxeatarrak urrez jantzi dira

Binakako Urrezko Aizkora irabazi zuten Donatok elite mailan eta Garikoitz eta Oihanek gazteetan

A.A.

Donato Larretxea eta Aitzol Atutxak lortu zuten Binakako Urrezko Aizkora, martxoaren 1ean Azpeitian jokatu-tako finalean Anjel Arrospide eta Iñaki Aierbe mendean hartuta.

45 ontzakoa zeinek kolpe gutxiagotan moztu hasi zuten finala; aizkolari bakoitzak enbor erdia moztu behar zuten. Arrospide eta Aierbe izan ziren nagusi, 36 kolpetan erdibitu baitzuten enborra, aurkariak baino bat guttiago behar izan zuten.

Bigarren lanean, bi 45 ontzako moztu behar zituzten, aizkolari bakoitzak bana. Larretxea eta Atutxak hortxe lortu zuten lehen garaipena (1'37"). 12 segundo atera zizkieten aurkariak.

Hirugarren lanean, 80 ontzakoak zutik, eta txanda librean moztu behar zuten; gipuzkoarrek hor zuten alde lortzeko aukera, baina ez zen hala izan. Irabazi egin zuten (8'01"), baina 3 segundo bakarrik atera zizkieten Donato eta Aitzoli.

Laugarren goan, kana-erdiko bat zutik eta bertze bat etzanda moztu behar zituzten, bakoitzak bana. Horretan ere gipuzkoarrek aukerak zituzten, baina ez zuten asmatu; Larre-

txeak eta Atutxak aitzinetik bota zituzten bi enborrak (4'25"), eta 11 segundo atera zituzten.

Saio bakarra falta zen finala akautzeko, eta hogeigarren segundo zituzten alde Larretxea eta Atutxak. Finala nork irabaziko zuen nahiko garbi zegoen eta azkeneko lanean, bikote bakoitzak bi kana-erdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar zituzten txanda librean.

Atutxa eta Larretxea lehen enborretik paratu ziren aitzinean, eta lan erdia egiterako auzia erabakita zegoen. Azkeneko lana, 16 minutu eta 4 segundotan akautu zuten, eta minutu bat eta 31 segundoko aldea kendu zieten gipuzkoarrei. Lan guztiak burutzeko 30 minutu eta 37 segundo behar izan zituzten Larretxea eta Atutxak, eta 32 minutu eta 38 segundo, berriz, Arrospidek eta Aierbek.

LEHIA ESTUA GAZTEETAN

Gazte mailan ere Larretxeatarrek jantzi zuten txapela, baina 13 segunduko aldea bakarrik atera zieten Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi leitzarrei. Beraz, gazte-en finalean emozio gehiago izan zen. Izan ere, leitzarrek nagusi izan ziren hasierako hiru probetan baina az-



ARGAZKIAK: AITOR A.

Donato Larretxea enbor gainean jarrita, Oihan semea eta Garikoitz iloba alde banatara dituela. Hiruek txapela jantzi dute Binakako Urrezko Aizkoran.



Donato Larretxea.



Garikoitz Larretxea.



Oihan Larretxea.

ken saioan, alde horri buelta ematea lortu zuten Larretxea lehengusuek. Beraz, egun boro-bila Larretxeatarrentzat, Azpeitiatik hiru txapel lortu baitzituzten.

«GAU POLITA IZAN DA»

Donato Larretxea kontent zegoen finala akaututa: «Hiru txapel daramazkigu etxera, eta hau gogoan izateko modukoa da. Gau polita izan da», onartu zuen.

TTIPI-TTAPA finala baino lehen ere izan zen Larretxeatarrekin. Hainbertze aizkolari gazterekin aizkora biziberritzen ari ote den galde-tuta, zera erran zigun Donatok: «Momentuan

18 urte inguruko gaztedi polita ari da aizkoran, ongi ari direnak. Gaia badute, baina egunero-egunero segitu egin behar da aurrera ateratzeko. Adin zaila da, paranda egitea izaten dute buruan eta pixka bat hori alde batera utzi behar da. Norbere gorputza zaindu egin behar da. Hori arazoa da». Garikoitzentzat ere pozgarria da hainbat gazte aizkoran ikustea. Oihanen ustez, «egia da urte batzuk izan zirela aizkolari gazterik gabe eta orain gure kinta inguruko aunitz bagara, behetik goit heldu garenak. Esperantza behinik behin badugu aurrera ateratze-

ko eta hortan saiatuko gara».

Larretxea gazteek orain arte ikasitakoa aita eta osabari zor dietela onartzen dute: «Egurraren moztzen, aizkorari tiratzen, plazetan ibiltzen. Dakigun guzia beraien zor diegu» dio Garikoitzek. Oihanen ustez ere, «aitak esperientzia pilaka du, eta orain sasoi guttixeago izanda ere, esperientzia horrekin moldatzen da eta aizkora ederki mugitzen du». Donatok dioenez, semeak eta ilobak «nahiko maila ona dute eta segitzen badute etorkizun polita dutela iruditzen zait, hori beraien baitan dago».



JOSU BALEZTENA

Eratsungo erremontista profesionala

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Aitor AROTZENA

2001eko apirillean debuta egin zuen profesionaletan Aspe enpresarekin Josu Baleztenak, 18 urterekin eta sei urte eta erdi eman zituen enpresa horretan. Baina enpresak kontratua ez ziola berrituko jakinarazi zion. Erabakiak ustekabeen harriatu zuen Baleztena, hobekien ari zenean heldu zela uste baitu: «Azkeneko urtea onena izan zen. Jokoz ongi nintzen eta eskuek ere errespetatzen ninduten, beti arazoak izan baitituz eskuekin, baina horiek atzen-
duak nituen».

Esku pilotan izan zituen estadistikak begiratu, 258 partida jokatu zenituen profesionaletan, horietatik 123 irabazi, 135 galdu... Zenbakiak hotzak dira, ordea, eta Baleztenari esku pilotak zer sentsazio utzi dion galdegin diogu: «Bizi guzian beti esku pilota izan dut buruan. Ilusio handia nuen, baina gaur egun enpresek pilotaria arrunt gazterik destakatzeari nahi dute. Nik beti aditu dut pilotaria 25 urtetan egiten dela, baina nik 18 urtetan debutatu eta segituan nahi

zuten figura bat izatea eta hori zaila da. Hori gutxi egiten dute eta ba-koitzari bere denbora eman behar zaio. Nik oraindik zerbait egiten ahal nuenaren sentsazioarekin utzi dut esku pilota».

AITXATIK IREKITAKO BIDEA SEGITUZ

Erabakiak min handia eman zion, baina lur jo beharrean, erremontearrekin probatzea erabaki zuen, Migel Mari Urrutia lagunaren aholkuari segituz. Entrenamendu gogorak egin ditu. Afizionatu mailan, Nafarroako txapelketako eta Euskal Ligako finaldietara ere ailegatu zen eta otsailaren 24an, garaipenarekin debuta egin zuen profesionaletan Euskalen. «Dena azkar joan da eta oraindik ametsetan nagoela iruditzen zait, ne-

«Eskuekin arazo asko izan ditut eta beharbada lesionatua egotean dira momenturik txarrenak. Baina horietatik ere aurrera atera eta ikasten da»

«Eskuz ez segitzeak min egin zidan, baina erremontean beste aukera bat daukat»

• 18 urterekin debutatu ondotik, Josu Baleztena Iruretagoiena eratsundarrak sei urte eta erdi eman zituen eskuz profesionaletan, baina Aspe enpresak kontratua ez ziola berrituko jakinarazi zion joan den urte hondarrean.

• 2007ko San Migel egunean, irailaren 29an, jokatu zuen azken partida eskuz profesionaletan. Bost hilabete eskas beranduago, otsailaren 24an erremonte profesionalean debuta egin zuen.

• Ibilbide berriari garaipenarekin ekin zion. Etxeberrria IV.a lagun zuela, 35-31 irabazi zieten Matxin IV.a eta Etxezabali Euskalen. Atzelaria da orain, «postura behekoa baita».

re burua esku pilotari bezala ikusten baitut, arraroa egiten zait».

Bitxikeria gisara, Juanito Iruretagoiena Getaria bere aitatzik ere ibilbide beretsua egin omen zuen. Eskuz, afizionatu gisara 22-21 galdu omen zuen Gallastegiren kontrako partida bat (azken dejada txapara joan zitzaioela kontatzen omen zuen sarritan) eta gero erremontean aritu zen. «Ibilbide bera egiteak izugarritzko ilusioa egiten dit, baita amari ere».

Modalitatez aldatu diren pilotariak aipatuz, Urrutia duela urtebete palaz aritzen zen eta aurten erremontean Faustino txapelketa irabazi du Lizasorekin. «Horrek morala ematen dit, hain denbora gutxian egin du eta esaten duzu, 'zergatik ni saiatu ez?'».

Lizaso, Urrutia... Momentuko atzelari onenak Malerrekaokoak dira, hurbilekoak... «Eredu onak dira eta asko erakusten dute. Urrutia lehen hilabeteetan erakusten aritzen zitzaidan eta orain brometan esaten dit, ez didala gehiago erakutsi beharko, laster konpetentzia izanen naizela... Lasai egoten ahal da oraindik!».

PILOTA

Iruritako Urrutia anaiek eta Etxenikek irabazi dute paxaka txapelketako IX. edizioa

laz ere Urrutia anaiek atera ziren garaile, orduan Elizaintzinekin

ttipi-ttapa

Joan den urtean bezala, Iruritako Oskar eta Igor Urrutia anaiek izan dira aurtengo IX. edizioan Mitxel Etxenikek jantzi du txapela beraiekin. Martxoaren 1ean Iruritako Aranabia pilotalekuan jokatuako final handian 9 eta 5 irabazi zie-

ten Joseba Urtasun, Jesus Garate eta Cesar Sarrateari.

Hirugarren posturako lehian emozio guttiago izan zen eta Xabier Ripa, Guillermo Etxenike eta Cesar Iñarreak 9 eta 3 irabazi zieten Miguel Bidegain, Iñaki Zabaleta eta Jesus Etxenikeri.

Beraz, honela gelditu da IX. paxaka txapelketako behin betiko sail-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Paxaka txapelketaren IX. edizioan lehenbiziko lau postuetan gelditu diren pilotariak ageri dira argazkian, martxoaren 1ean Iruritan jokatuako finalaren egunean. Tartean txapela soinean Igor eta Oskar Urrutia eta Mikel Etxenike daude.

kapena: txapeldunak Iruritako Urrutia anaiek eta Etxenike. Azpitxapeldunak Iruritako Urtasun, Garate eta Sarratea. Hirugarrenak Iruritako Ripa, Etxenike eta Iñarrea. Laugarrenak Bi-

degain, Zabaleta eta Etxenike.

Aipatu bezala, Urrutia anaiek txapeldun izan ziren iaz Elizaintzinekin. 2001ean ere txapelketa irabazi zuten eta 2003tik 2006ra lau edi-

ziotan azpitxapeldun izanak dira, gehienetan Elizaintzinekin eta 2004an Ballarenarekin. Beharbada beraiek izanen dira paxaka txapelketa honetan garaikur gehien lortu dituztenak.

2. mailako Nafarroako paleta gomako txapeldun izan dira Oskariz eta Berho

Lehen mailan azpitxapeldun Antxordoki eta Telletxea

ttipi-ttapa

Gazia eta gozoa. Bietatik izan zuten Iturrakako frontoian Nafarroako paleta goma txapelketaren finaleran parte hartu zuten Arkupe elkarte pilotariak.

Lehen mailako finalan gazitik dastatu behar izan zuten Guillermo Antxordoki igantziarrak eta Imanol Telletxea lesakarrak, 16 eta 30 galdu baitzuten Sanchez eta Merindanoren kontra. Atzelariak, batez ere, partida bikaina jokatu zuten eta Bortzirietako pilotariak ezin izan zuten deus ere egin. Saiatu saiatu

ziren eta lekuz ere aldatu zuten, atzelaria aitzinean paratuz eta aldearantziz, baina ezinezkoa suertatu zen. Hasieran berdindu samar joan arren, azkenean alde nabarmena lortu zuten Sanchez eta Merindanok.

Bigarren mailan, berriz, Arizkungo Joseba Oskarizek eta Oronozko Carmelo Behrok gozotik probatu eta txapela jantzi lortu zuten. Final estua izan zen eta abantaila handiegirik ez zen ikusi markagailuan. Azkenean, Oskariz eta Berhok 30 eta 26 irabazi zieten Perez eta Espinali.



ARGAZKIA: JUANJO ATXA

Txarutako pilotarietako emaitza onekin itxi zuten 2007a Martxoan egon arren, aipatzekoa da, Txarutako pilotarietako emaitza onekin bukatu zutela 2007a. Gartzarongo Txapelketan Ugaitz Elizalde eta Arkaitz Untxalo iturendarrak txapeldunak izan ziren kimuetan, eta Igor Arregi donamariarra eta Gaizka Otxandorena almandoztarra —argazkian— helduetan. Burlatako Udako torneoan Unai Madariaga urroztarrak kadete mailan eta Xabier anaiek gazteetan finalerdiak jokatu zituzten. Nafarroako klub arteko txapelketan, berriz, Xabier Elizalde iturendarra eta Toni Uhartea amaiurtarra azpitxapeldunak gelditu ziren helduetan (Gure Txokoarekin). Aritz Juaneña saldiastarrak kadete mailan eta Unai Barberena iruritarrak eta Xabier Madariagak gazteetan finalerdiak jokatu zituzten. Joxean Tolosa Torneoan Xabi Arratza iruritarra finalerdietan kanporatu zuten. Lizarrako Txapelketan finalerdietan konformatu behar izan zuten bortz pilotari hauek: Iker Espelosin (Sunbilla), Untxalo, Joseba Apeztegia (Irurita), Beñat Oronoz (Lesaka) eta Unai Barberena. Halere, Oronozek Eguberrietako torneoan txapela lortu zuten, eta Gaizka Otxandorenak Cenizeron, Lezon eta Urdulizen.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

IPUIN KONTALARIAK

BERA

Martxoaren 14an, Miren Camison ipuin kontalariak *Animalien hitz sekretuak* izeneko ipuina kontatuko du 4-8 urte bitarteko haurrentzat. 18:00etan Liburutegian.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Martxoaren 19an, *Jalisko Band* taldearen kontzertua Lur dantzalekuan. 00:30ean.
Martxoaren 22an, *Kaotiko & Ufestuek* taldeen kontzertua Lur dantzalekuan, 00:00etan.

BERA

Martxoaren 15ean, *Tubala Uxoa* abesbatzaren kontzertua Kultur Etxean, 19:00etan.

LESAKA

Martxoaren 29an, *Joseba Irazoki & Belardianen* kontzertua Atxaspi Ostatuan, 22:30ean.

HAURRENTZEKO AISIALDIA

LESAKA

Martxoaren 19tik 29ra, haurrentzako parkea. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Sarrera: bi euro.

FERIAK

LESAKA

Martxoaren 29an, Bortzirietakoazienda azoka, goizean.

BILKURA

LESAKA

Martxoaren 26an, dolu-babes talderaen bilera. Antoiu 27-2 aretoan, 19:30etik 21:00etara. Senda Fundazioak antolatua.

TELEBISTAKO TXOKOA



Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala ikusgai

MARTXOAREN 18AN OSORIK ESKAINIKO DA


Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 37. edizioa bere akaberara hurbildu da, ailegatu baita final haundiaren eguna. Larunbat honetan izanen da Elizondoko Lur dantzalekuan, 17:00etatik aitzinera. Finalean egon ezin dutenek, ordea, edo egonagatik bertsoekin berriro ere gozatu nahi dutenek horretarako aukera izanen dute **TTIPI-TTAPA TELEBISTAN**. Izan ere, hurrengo astelehenean, martxoaren 18an, finala oso-osorik ikusgai izanen da **TTIPI-TTAPAN**. Erika Lagoma, Xabier Legarreta, Jon Barberena, Julen Zelaieta, Xabier Terreros, Migel Mari Elozegi *Luze*, Iñigo Olaetxea eta Julio Soto

zortzi finalisten doinuekin gozatzeko aukera izanen dute bertsozale guztiek.

BIHARAMUNEKO PILULARI BURUZ 'DUDA-MUDA' SAIOAN

Bertalde, sexologiari ere tartea eskainiko diote **TTIPI-TTAPA TELEBISTAN**. Ortzegun honetan, martxoak 13, Marta Aristu hezitzaile sexualarekin egonen dira *Duda-muda* saioan, eta Biharamuneko Pilulari buruz mintzatuko dira berarekin. Gainerakoan, hilabete bukaera aldera egingen diren Sunbilla Kultur Egunak eta Lesakako Erdi Aroko azoka ere ikusgai izanen dira **TTIPI-TTAPAN**.

DISKAK



Amaia ZUBIRIA

Nabil

ELKAR, 2008

Amaia Zubiria euskal kantagintzako sentikortasunik handieneko ahotsaren jabe da. Magia handiarekin nahasten du kantuaren sentimendua kantatzearen plazerarekin, eta entzuleak, azkenean, ahotsaren lilurak harrapatzen ditu. Disko berri honetarako, iturri zaharrari dario ur beti berri eta freskoaren modura, erreperitorio klasikoari helduko dio, bereziki Iparraldeko tradizioa ekarritik (*Maitia nun zira, Amodioa zoin den zoroa, Ura isuririk, Goizean argi hastean, Nik badut maiteño bat, Kalla kantuz, Adios izar ederra, Prima ejerra...*), amini bat hegoaldeko (Donostiako hiru damatxo, Ama ezkondu ezkondu...), hala nola historikoak izan diren bi emakume kantariren kantu zoragarri pare bat ere (Lurdes Iriondoren *Hala ere* eta Estitxuren *Ave Maria* ezagunak).

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (otsailaren 22tik 29ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 37,00 € (+4,00)

Zerri gizena
1,005 € kilo. (=)

Zerramak:
0,480€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,16 (=)

1.koa 3,85 (=)

2.koa 3,29 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,28 (=)

1.koa 3,97 (=)

2.koa 3,39 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,08/3,18

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,30/5,90

8-10 kilokoak: 4,40/4,90

JAKIN BEHARREKOAK

Gida baimena epez kanpo berritzeak ez du azterketa berriz egitera behartuko

Motozikletak gidatzeko guttieneko adina 15 urtekoa izanen da

Orain arte, gida-baimena berritzeko lau urteko epea izaten zen, eta epe hori gairiditutakoan azterketa teoriko zein praktikoa biak egin behar izaten ziren berriro gidabaimena lortzeko. Orain, ordea, gida-baimena indargabetua dutenek ez dute berriz egin beharko azterketa. Hemendik aitzinera exijitu den baldintza bakarria mediku azterketa izanen da. Neurria urtarrilaren 26an onartu zuen Espainiako Ministroen Kontseiluak, «*herritarren eskaerari erantzuteko erabakia*» dela erranez.

Herritar aunitz izan dira urteotan indarrean dagoen gidabaimenik ez, eta halere, gidatzen segitu dutenak. Espainiar estatuan, erraterako, egoera horretan dauden 15.000-20.000 gidari inguru kalkulatu dira.



Gidabaimena lortzerako orduan hainbat aldaketa onartu dituzten Espainiako Ministroen Kontseiluak eta Trafiko Zuzendaritzak (DGT).

Edozein kasutan, baliorik gabeko gidabaimenik gabe gidatzen ari direnek 300 eurorainoko isuna jasoko dezaketela ohartarazi du Espainiako Trafiko Zuzendaritzak (DGT). Gisa berean, baliteke bi urteko epean gidabaimena berreskuratzeko aukera ukatzea.

GIDABAIMEN ETA AZTERKETETAN ALDAKETAK

Bertzalde, gidabaimena lortzeko egin beharreko azterketa teorikoan ere aldaketak egingen ditu DGTk. Galderetan erantzun posibleak ugariak izanen dira, bat, bi, hiru edo lau erantzun zuzen egon daitezke.

Orain arte erantzun bakarra zen balekoa. Hartara, gehieneko akats kopurua ere igo egingen da. Autoen gidabaimena lortzeko —B baimena—, sei akats onartuko dira. Berriki arte, ordea, 30 galdera egin eta hiru akats onartzen ziren.

Motorrak gidatzeko baimena lortzeko arauak ere aldatu ditu Espainiako Gobernuak. Hemendik aitzinera ziklomotoreak gidatzeko guttieneko adina 15 urtekoa izanen da, eta bertze bidaieri bat eraman ahal izateko guttienez 18 urte izan beharko ditu gidariak. Gainera, motozikleta gidatu ahal izateko azterketa praktiko bat egin beharko da errepidean.

Orain arte, 14 urterekin atera zitezkeen motozikletetako baimena, etea 16rekin bidaieri eramateko aukera zegoen.

LIBURUAK



Ulespiegelen elezaharra

Charles de COSTER

ELKAR, 2008

Herri germanikoen folkloean pertsonaia guztiz ezaguna eta maitea da Thyl Ulenspiegel: adar-jotzailea, sabelkoia, neskazalea, hiltun egokia, kantaria... Pikaroaren figura unibertsalaren haragitzea dugu. Charles de Coster-ek folklorea zena Espainia okupatzailearen uztarripetik liberatu nahi duen XVI. mendeko Flandrian kokatu zuen, eta horrela, inguru sozial eta historiko bat hartuta, Ulenspiegel hazi egiten da, zirtolariak indar berria

hartzen du, alprojak etika bat aurkitzen du, alderraia ez doa ihesi... Eliza Katolikoak kondanuetan dabil, Inkisizioak erre egin nahi luke, Albakoaren gerraginek zin egin dute urkatu egingen dutela, eta Ulenspiegel gerra, zurruta eta maitasuna egiten du: barrabana gozo matxinatuen artean. Epika eta lirika, epopeia eta komedia uztartzen dituen idazlan hau Belgikako literaturaren abiapuntutzat hartu izan da, belgikartasunaren sortzailetzat.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Martxoaren 16an, Astigarragara ateraldia Baztango Mendigoizaleak taldeak antolatuta.
Martxoaren 23an, Itsusira ateraldia antolatuta du Baztango Mendigoizaleak.
Martxoaren 30ean, Bortz milak, Baztango Mendigoizaleen eskutik.

IKASTAROAK

BERA

Martxoaren 24tik 28ra, Hip-hop edo funky ikastaroa. DBH 1 eta 2koentzat. Izen ematea martxoaren 17a arte. Argibideak: 948 630172.

ERAKUSKETAK

BERA

Martxoaren 17tik 30era, *olioa eta arkatza* margo erakusketa. Fernando Azkona eta Jose Mari Iparren lanak. Asteleheneetik igandera 10:00-14:00/16:00-19:00.
Martxoaren 19tik 24ra, *Berako baserriak* erakusketa, Rosa Mari Errandonearena. Jamotenean (18:00-20:00).

ZINEA

LEITZA

Martxoaren 14an eta 16an, *La flauta mágica* filma ikusgai. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

BERTSOAK

ELIZONDO

Martxoaren 15ean, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala. 17:00etan Lur dantzalekuan.

LESAKA

Martxoaren 27an, bertso saioa Zialdotik abiatuta, 19:00etan.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaintu behar da.
Ttipi-ttpa teletxistutan eta argentziapilatzen ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kubako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIZAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttipak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituko
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.
- 2. eskuo pisuak, pisu berriak, lur eremuak eta etxeak salgai.

DONEZTEBE.
- 2. eskuo pisuak, pisu berriak, lur eremuak eta etxeak salgai.

BERA-LESAKA.

- 2. eskuo pisuak eta lur eremuak salgai.

NARBARTE.

- 2. eskuo pisuak eta lur eremuak salgai.

DONEZTEBE.

- Partzela urbanizatuak salgai.

DONEZTEBE INGURUKO HERRIETAN.

- Pisuak, apartamentuak, baserriak, etxeak, bordak eta lur eremuak salgai.

BAZTAN-BIDASOA.

- Bordak, baserriak eta herriko etxeak salgai. Moldatuak eta zaharberri beharreak.

PROMOZIO BERRIAK.

GARTZAIN.
- Familia bakarreko bi etxebizitza, 600 m²ko lur eremuarekin.

ARIZKUN.

- 2 eratako familia bakarreko etxebizitza lur eremuarekin.

IRAIZOTZ.

- Pisu berriak lorategiarekin edo terrazarekin, trastelekua eta aparkalekua.

AGOITZ.

- Familia bakarreko 20 etxebizitza, lur eremuarekin.

ARIZKUN.

- Nabe eta lur eremu industrialak.

ORONAZ-MUGAIRI.

- Bi familiako etxebizitza lur eremuarekin.

ELIZONDO.

- Adosatutako lorategiarekin.

INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESAKA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurarekin eta lizentziak salgai. Eremu urbanizatu ura, argia, urzikinen putzua... Promotore bat interesatua egonez gero, permutarako prest. 40 milioi pzt. ☎678 526091.



IRUN. 87m²ko pisua salgai, 3 logela, 2 bainugela, trastelekua eta garajea. Mobleztatua. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. ☎629 032752.

ZUGARRAMURDI. Bifami-

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baseria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatutak bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

andueza

NARBARTE:
- 85m²ko pisuak, 20m²ko garajea, 100m²ko lorategiarekin, 30.500.000 Pzt.

- Lur eremu erakargarria 3.000m². Tatu eremu hobea 25.000.000 Pzt.

GAZTELU:
- Bi familiako etxebizitza salgai, 300m²ko lorategiarekin, 42.000.000Pzt.

DONEZTEBE:
- Hiri erdian, 107m²ko pisu berris salgai, 42.000.000 Pzt.

ORONAZ:
- Errentazko dauden apartamentuak salgai, 150.000€.

- 140m²ko pisuak salgai, 120.000€.

- Errentazko dauden 115m² etxebizitza baten bakoiko solairu salgai, Lorategiarekin 200.000€.

ELIZONDO:
- 130m²ko 3 toilet salgai Solairu bakarreko, eskalerrak gabek, Oso erosoak, 400m²ko lur eremuarekin.

BASERRIAK ERE SALGAI

T. 948 23 88 16
M. 620 20 87 87

www.habitat24.com/andueza

lientzako etxebizitza salgai, bakoitza 170m²koa. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea,



Baztango

promoción inmobiliaria

PROMOZIO BERRIAK:
BERA: Zaharberritutako eraikin tradizionalen, 2 eta 3 logeletako etxebizitzak, igogailuarekin. Laster emanen dira.
DNEZTEBE: Herrerriaren 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzak errentazko eginen da laster, gutxi eraberritutako eraikinean. Erreserbatzeko zerranda irekia.
IRURITA: Familia bakarreko etxebizitza berria, lorategiarekin. Diseinu personalizatutako sukera.
IRURITA: 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzak errentazko eginen da laster, gutxi eraberritutako eraikinean, lur eremu pribatuarekin eta igogailuarekin.

OBRTAN DAUDEN PROMOZIOAK:
ETXALARREN eta LESAKAN.

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tfn. 948 630552
Faxa 948 630106

N-121Ako LANGOZTAR
ORRITAN HARTZEO
PISUA BEHAR DARA,
HARTZETU ERABIA.

609 708797

ETXALAR. ZAHARBERRITUTAKO
BEHAR DEN BASERRIA
SALGAI, LUR ERREKAREKIN,
INGURU ZORAGARRIA ETA
ORIENTAZIO ONA.

609 708797

Donostia. Zuzenazko
115m² etxebizitza baten
bakoiko solairu salgai,
3 logela, 2 bainugela eta
trastelekua. Errentazko dauden
apartamentuak salgai.

630 948271

egongela-jangela, itxitako garajea. 600m²ko lorategia. 295.000 euro. ☎615 744433.

DONEZTEBE. 80m²ko pisu mobleztatua salgai, 15m²ko pisu berris salgai, Bittirian. Bista onak eta prezio ona. ☎670 319380 607 769519/ 948 637347.

LEGASA. Pisua salgai. 3logela, sukaldea, egongela eta komuna. Bista onak eta prezio negoziagarria. ☎649 555686.

IRUN. Hiri erdialdean 93m²ko apartamentua salgai. 2 logela, sukalde amerikarra, bainugela, berogailua eta terraza ttikia. Mobleztatua eta zaharberritua. 195.000 euro (33 milioi pzt) ☎636 858512.

BERA. 3logelako pisua salgai, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. 140.000 euro. ☎609 708797 (goizez).

ARIZKUN. 90m²ko pisua salgai, erreformatua. Sukalde mobleztatua eta sartzeko prest. ☎646 245619.

DONEZTEBE. 100m²ko pisua salgai, Zazpigurutze auzoan. ☎639 184210.

BERA. Eztegar pasealekuan pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. ☎635706629 / 943 491853.

BERA. 80m²ko pisua salgai, bizitzera sartzeko prest, eta prezio interesgarrian. ☎617024325.

gai, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. 140.000 euro. ☎609 708797 (goizez).

ARIZKUN. 90m²ko pisua salgai, erreformatua. Sukalde mobleztatua eta sartzeko prest. ☎646 245619.

DONEZTEBE. 100m²ko pisua salgai, Zazpigurutze auzoan. ☎639 184210.

BERA. Eztegar pasealekuan pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. ☎635706629 / 943 491853.

BERA. 80m²ko pisua salgai, bizitzera sartzeko prest, eta prezio interesgarrian. ☎617024325.

ETXEBIZITZAK

102 Erosi

ARANTZAN baseria erosi-ko nuke. ☎600 670495

ETXEBIZITZAK

109 Errentan eman

IRUÑA. Pisu mobleztatua errentan emateko. 2 logela, komuna, egongela eta sukalde ekipatua bizitzen jartzeko. Garajea eta autobus-ge-

ralekua. Buztintxurin. ☎637 136542/ 689 950350.

IRUÑA. Mendebaldea zonaldean (Irunlarrea kalea) 120m²ko pisua errentan emateko. 4 logela eta guztiek kanpora ematen dute. Egongela eta sukalde ederrarekin. ☎948 351822.

ARIZKUN. Pisu mobleztatua errentan emateko. 948 453146.

GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

LESAKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan emateko

ELIZONDO. 60m²ko lokal komertziala errentan emateko. Berogailua eta komunarekin. Komertzio bat jartzeko prestatua. Toki onean. ☎665 556422.

LURRAK/ORUBEAK 112 Saldu

DONEZTEBE. Lur eremu urbanizatua proiektuarekin salgai, 250m². ☎617 059683.

ZERBITZUAK 205 Zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....
Klase guztetako zurgin lanak
Eskatu sarraskuntzak konpromisoa gabe
Bona Regal Errentak
Tel: 948 634 508 - 447 810 144
Gomendioa: 200873

LANA 302 Eskaintzak

LESAKA. Atxaspi Ostatuan zerbitzari euskalduna behar da asteburuetan lan egiteko. ☎948 637536.

IRUN. Ola sagardotegian urte osoan sagastiak garbitu eta bertze lanetarako muti-

la behar da. ☎639 736767.

IRUN. Ola sagardotegian urte osoan neska zerbitzaria behar da. ☎639 736767.

BERA edo **LESAKA** ko pertsona bat behar da egun erdiz denda batean lanean aritzeko. emitzele@yahoo.es.

ETXALAR. Etxalarko Bentan egun osoz lan egiteko zerbitzaria behar da. Baldintza onak. ☎948 635000 (Jabier).

Eskualdeko **altzaridenda** batean lan egiteko dekoratzailea behar da. Salmenta arloan esperientzia izatea baloratuko da. ☎686462717.


BERA. Larunen frantsesa dakiten neska eta mutila behar dira sei hilabetez lan egiteko. ☎948 631100 (egun osoan)/948630794 (gauetz).

LESAKA. Udal igerilekuan asteburuetan sorosle lana egiteko pertsona bat behar da. Lanaldia handitzeko aukerarekin. ☎617 373246.

MOTORRA 501 Salerosketak

Golf IV TDI autoa salgai, 2000ko azarokoa, 100 CV, txuria, 5 ate, klimatizagailua, mp3a. Egoera onean. ☎620 249262.

Audi A4 2.0 TDI 140 AVANT. 2005ekoa, 88.000 km. GPSa, larruzko besaulkiak eta abar. Hagitz ekipatua. ☎669 312220.



Motoa salgai. Moto trail Honda MTX 125 R. 1992koa. merke. ☎618 774322.

SUZUKI King Quad 700 4x4 automatikoa salgai. Gorria, 2007koa. Egoera onean, gu-

tti erabilia. ☎628408722 (Mikel)

Bigarren eskuko **motoa** salgai, Honda 650 cc, Dominator. 47.000 km, egoera onean. ☎696 694405 (gauetz).



Ford Monobolumen autoa salgai, 7 plaza eta ohatzea. Automatikoa, aire egokitua. Egoera onean eta merke. ☎620 997794.

Peugeot 406 HDI autoa salgai. Egoera onean eta ekipamendu osoarekin. ☎650 065764.

MOTORRA 502 Tailerrak

GANIX
TAILERRA
Bilgune mekanika eta elektrizitatea
BERA FIAT zerbitzua
Bilguneak, 9 - Tel: 948 630 449

TALLERES SANTESTEBAN 948 450282 • DONEZTEBE

AUTO IA BERRIETAN
ESKAITZA ZABALA
(6-12 hilabeteak)
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

BIGARREN ESKUKOAK
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen Saxo 1.9 D, Renault Laguna 2.2 D, Clio Campus 1.5 DCI, Peugeot 406, Clio Confort 1.5 DCI, Opel Astra 1.7D 60 CV.

MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesel)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

RENAULT BERAUTO
Tel: 948630621
HILABETEKO ESKAITZA

Megane exclusive 1.9 dci
Ekipamendu ikaragarria.
Zatoz ikustera!!!

BAITA ERE
Trafic combi 9.....2005
Megane 5 ate.....2007
Clio campus.....2007
Scenic 1.5dci.....2007
Space 1.9 dci.....2006

ANIMALIAK 601 Emateko

5-8 hilabeteko **artzain zakurra** oparitzeko, parasitoak kenduak eta txertatua. ☎630 118538.

Ardi txakurkumeak oparitzeko. ☎666 433959.

ANIMALIAK 602 Salerosketak

ETXALAR. 20 erle saltzeko, Perfeccion. ☎948 635174.

Urte bateko **migattua** eta **bi aretze** jaio berri salgai. ☎948 631046.

DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

Urrezko belarrirako zintzilikari bat agertu da Berako Elizako eskaileretan, otsailaren 11n aurkitua. ☎670 305441.

SEAT
VOV
HYUNDAI
ALFA

ZOANSA
MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

DENETARIK

702 Salerosketak

Estreinatua gabeko **egongela, jangela eta logelako altzariak** eta **barbakoa** salgai. ☎948 592031/620022620.

Letxuga ekologikoak salgai. ☎948 393083.

BERA. 150 inguru belar fardo ttiki saltzeko. ☎660785305.

LG-DVD grabagailua salgai, disko gogorrarekin. ☎609 477277.

DENETARIK

703 Bertzelakoak

Kotxe zahar bat berehala eta luzaro mugitu gabe uzteko lekua behar da: **pabiloia, lonja...** ☎636 072732.

MERKATU
TTIKIA

Zure iragarkia 3 lokutan
Aldizkaria
Telebista
Internet

8€

Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



MIKEL SANTESTEBAN GOIZUETAK 2 urte beteko ditu martxoaren 18an. Zorionak familia eta berxiki Lorearen partetik.



JAIONE IRIGOIEN MADARIAGA aranztarrak martxoaren 5ean 24 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat amatxiren partetik.



Almandozko UXOA AGUERRE martxoaren 11n 5 urte bete dituelako, zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta bere anaia Oihanen partetik.



Zubietako UXUE SANTESTEBAN OTXANDORENAK urtea beteko du martxoaren 13an. Aunitz urtez familia eta bereziki Naroa, Garazi eta Ikerren partetik.



MAIALEN GRAJARENA GONZALEZ 4 urte bete ditu martxoaren 12an. Aunitz urtez aita, ama, amatxi, osaba, Irupe eta Mikele partetik. Lau muxu!



Gazteluko MIKEL TEILETxea SARREATEAK urtea beteko du martxoaren 26an. Zorionak eta muxu haundi bat gure mutiko tikiari familia guztiaren partetik.



Elizondoko GARAZIK 5 urte beteko ditu martxoaren 16an. Zorionak eta 5 muxu haundi etxeko printzesaren-tzat.



EKIÑE MINDEGIA BALEZTENA aurtiztarrak apirilaren 2an 10 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat potxoli Arkaitz, Ainara, aita eta amaren partetik. Berendu goxoa prestatu!



ARITZ ARANBERRI GOIAK 2 urte beteko ditu martxoaren 17an. Muxu aunitz familia guztiaren partetik.



ARITZ ARANBERRI GOIAK gizontxo lesakar honek 2 urte beteko ditu martxoaren 17an. Zorionak eta besarkada haundi haundi!



Zugarramurdiko IONE ZOZAIK 14 urte bete ditu martxoaren 7an. Zorionak Ionitzenea, Martienea eta Reparazeako familiaren partetik.



MAIENAK eta MAÏELLEK 5 urte bete dituzte martxoaren 3an. Zorionak eta muxu potoloak Sarako eta Senpereko familiaren partetik.




IORITZ DORRONSORO IPARRAGIRRE leitzarrak urtea bete du. Orain arte bezain alai jarrai dezazun zorionak eta muxu 1 aitabo eta amaxoren partetik.



IORITZ DORRONSORO IPARRAGIRRE leitzarrak urtea bete du. Zorionak eta muxu haundi bat Urto Txikiko familia guztiaren partetik.



Lesakako ANE AGIRRE OTXOTEKOK 4 urte beteko ditu martxoaren 14an. Zorionak eta muxu pila-pila aita, ama, Joseba eta familia guztiaren partetik.



NINBE URTEGEI URRARI, martxoaren 9an bortz urte bete dituen etxeko printzesari, zorionak eta muxu erraldoi bat Luken, aita eta amaren partetik.



Ingantzikoa **NINBEK** eta Sunbillako **JULENEK** 5 eta 11 urte bete dituzte martxoaren 9an eta 12an. Mila kilo zorion eta muxu erraldoi bana familia guztiaren partetik.



JOKIN eta MARIA TELLETXEA APEZTEGIAK martxoaren 13an eta 17an beteko dituzte urteak. Zorionak zuen aita eta amaren partetik. Eta ongi pasa!



JUAN MARI APEZTEGIA Ruizek martxoaren 5ean beteko ditu urteak. Zure familiaren eta Maialenen partetik zorionak!! Eta segi beti bezala.



FERNANDO eta MIKEL aita-semeak martxoaren 13an eta 19an urteak beteko dituzte. Zorionak eta ongi pasa familia guztiaren partetik.



FERNANDO eta MIKEL aita-semeak martxoaren 13an eta 19an urteak beteko dituzte. Zorionak eta ongi pasa familia guztiaren partetik.



Ingantzikoa **MANEXEK** martxoaren 14an 2 urte beteko ditu. Zorionak eta gozatu egun horretan ere! Muxu haundi bat!



Etxalarko **IRUPE eta ITSASO ELIZAGOIENEK** 15 eta 13 urte beteko dituzte martxoaren 29an eta apirilaren 4an. Zorionak familiaren partetik.



AINARA AMOROS aranztarrak 24 urte beteko ditu apirilaren 1ean. Aunitz urte eta muxu haundi bat inguruko erizainik onenari!



LIDE SAN SEBASTIAN ARRAIZAK urtea beteko du martxoaren 21ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Zubietako ANE ANSOK apirilaren 9an 10 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta ongi pasa eguna!



ARANTXA eta MAIALENK 8 urte beteko dituzte martxoaren 13an. Zorionak familia guztiaren partetik.



ARANTXA eta MAIALENK 8 urte beteko dituzte martxoaren 13an. Zorionak Xanen partetik.



Zubietako JULEN eta ENEKO SANTESTEBAN lehengusu «xintxoek» 6 eta 15 urte beteko dituzte martxoaren 12an eta 29an. Zorionak zuen familiaren partetik eta muxu handi bat bie! Karnele eta Endikaren partetik.



Ai zeinen ederki zeunden argazki hori atera zenute-nean e! Martxoaren 18an urteak beteko dituzulako aunitz urtez **Edu!**



Martxoaren 16an zure eguna! *We should go to lunch to celebrate!* Hobetzen ari ote da gure ingelesa? Zorionak zuri ere **JOXEMA!**



Martxoaren 16a igandea, ai ze penai! Egun horretan ezin denez, zuk aukeratu noiz ekarri gosaria! Aunitz urtez **AITOR!**



Aste Santutik bueltatu eta egun guttira, 28an, gure Aurtizko rubiaren gosaria! Aupa! Zorionak eta muxu haundi bat **MINDE!**



ENERITZ SALABERRIA NARBATE aranoarrak martxoaren 22an 3 urte beteko ditu. Zorionak! Hiru urten jabe da/gure neska edarra/eztegu baldarra/beso eta zangotan/badaka indarra/euskeraz ta erderaz/iten du diadarra/poxaren poxez dabil/soangil aranoarra/irri-parez danian/dirudi ostadarra.



Nire lehengusina **GARAZI SAROBE SANSIÑENAK** 5 urte martxoaren 16an beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat! Non daukazu printzesaren moztorra?



GARAZI SAROBE SANSIÑENAK martxoaren 16an beteko ditu 5 urte. Zorionak sorgintxo Lesakako eta Iruñeko familiaren partetik.



ANE ANSO zubietarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 9an. Muxu haundi bat Ainara eta Ekiñeren partetik. Zorionak trikitilari!



UXUEK 7 urte beteko ditu martxoaren 15ean. Zorionak aita, ama, ataxi, amatxi, osaba-izeba eta lehengusuen partetik. Muxu potolo bat Imanol eta Garazi.



ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



Estilo ugariko
mobleak

Lasao
• egurrezko altzaria

Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA
Tfnoa: 943 15 11 82 • Faxa: 943 15 10 98
e-posta: informacion@lasao.com
www.lasao.com



%100 haritz trinkoa

Lur

martxoak **15** larunbata

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINALA

17:00

RUBEN LUR GONBITES

MAKALA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

martxoak **19** asteazkena

JALISKO BAND

00:30 9€

martxoak **22** larunbata

KAOTIKO

+ **ufestuek**

23:30 12€ aurretik 15€ takillan

martxoak **29** larunbata

LUR D JOTAK | Ritxi & Mauro

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

apirilak **5** larunbata

★ SOZIEDAD ★ ALKOHOLIKA

15€ aurretik 18€ takillan



BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LUREUZONDO.COM

Heineken


Baztango Udala